

**LGBTI KOMUNITATEAREN EGOERARI
BURUZKO DIAGNOSTIKOA
ERDIALDEKO AMERIKAKO 4
HERRIALDETAN (El Salvadorren, Guatemalan,
Hondurasen eta Nikaraguan)**

Egilea: Clara Murguialday

2017ko urtarrila-ekaina

Laguntzaileak:



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
EL SALVADOR.....	4
A. LGBTI KOMUNITATEAREN EGOERA EL SALVADORREN	5
A. 1. GIZA ESKUBIDEEN TESTUINGURU OROKORRA	5
A. 2. LEGERIA ETA POLITIKA PUBLIKOAK: ARGIAK ETA ITZALAK	6
A. 3... ETA ITZALIK HANDIENA: GORROTO-KRIMENAK ETA JUSTIZIARA JOTZEKO (EZINEZKO) AUKERA	8
A. 4. TRANS PERTSONEN ESKUBIDEEN URRAKETA ESPEZIFIKOAK	10
A. 5. LGBTI KOMUNITATEAREN ERREIBINDIKAZIO-AGENDA.....	14
A. 6. NAZIOARTEKO LAGUNTZA JASOTZEKO PROPOSAMENAK	16
GUATEMALA.....	18
B. LGBTI KOMUNITATEAREN EGOERA GUATEMALAN	19
B. 1. BERDINTASUNEZKO ARAUDIA... LGBTI PERTSONEI APLIKATZEN EZ ZAIENA.....	19
B. 2. LGBTI PERTSONENTZAKO ERAKUNDEAK ETA POLITIKA PUBLIKO ESPEZIFIKOAK.....	20
B. 3. INDARKERIA ETA ZIGORGABETASUNA	25
B. 4. LGBTI MUGIMENDUA (IA)	27
B. 5. LGBTI KOMUNITATEAREN ERREIBINDIKAZIO-AGENDA.....	29
B. 6. NAZIOARTEKO LAGUNTZA JASOTZEKO PROPOSAMENAK	30
HONDURAS.....	32
C. LGBTI KOMUNITATEAREN EGOERA HONDURASEN	33
C. 1. INGURUNE GAIZTOA LGBTI KOLEKTIBOARENTZAT	33
C. 2. GORROTO-KRIMENEN ERDIALDEKO AMERIKAKO SAILKAPEN NAGUSIAN.....	35
C. 3. MUGIMENDU JAZARRIA, BAINA ERRESISTENTZIA HANDIKOA.....	38
C. 4. HAUTESKUNDE-PROZESUETAN PARTE HARTZEAREN GARRANTZIA	39
C. 5. LGBTI KOMUNITATEAREN ERREIBINDIKAZIO-AGENDA.....	41
C. 6. NAZIOARTEKO LAGUNTZA JASOTZEKO PROPOSAMENAK	41
NIKARAGUA	43
D. LGBTI KOMUNITATEAREN EGOERA NIKARAGUAN.....	44
D. 1. LEGE-ESPARRU BERRIA FSLN ALDERDIA GOBERNURA ITZULTZEAN	44
D. 2. TRANS EMAKUMEAK: DISKRIMINATUENAK ETA ERASOTUENAK	47
D. 3. NIKARAGUA: LGBTI KOLEKTIBOARENTZAT BATERE SEGURUA ETA LASAIA EZ DEN HERRIALDEA.....	48
D. 4. LGBTI MUGIMENDU ZATIKATUA ETA AHULDUA	49
D. 5. LGBTI KOMUNITATEAREN ERREIBINDIKAZIO-AGENDA	52
D. 6. NAZIOARTEKO LAGUNTZA JASOTZEKO PROPOSAMENAK	53

Sarrera

Dokumentu honen bidez, lesbianek, gayek, bisexualek, transexualek eta intersexualek (LGBTI aurrerantzean) El Salvadorren, Guatemalan, Hondurasen eta Nikaraguan bizi dituzten errealitateak jaso nahi izan ditugu. Lan hau, nolahi ere, proiektu zabalago baten barruan kokatuta dago eta, proiektu horri jarraikiz, LGBTI kolektiboaren giza eskubideak sendotu eta ezagutarazi nahi dira nazioarteko elkartasun-sareen eta kultura inklusibo baten bitartez. Lana **Gipuzkoako Foru Aldundiak** finantzatu du, eta Donostiako **Mugen Gaietik** GGKEak egin du.

Lan hau egiteko, askotarikoa den kolektibo horren problematikak eta inguruabarrak aztertu behar izan ditugu: kontuan hartu behar da kolektiboa lau gizarte-taldek osatzen dutela gutxienez (emakume eta gizon transexualek eta heterosexualak ez diren emakume eta gizonek). Gainera, barne-desberdintasunak dituzte gizarte-klasearen, jatorriaren edota adinaren arabera.

Kolektiboko kideek adierazi ditugun 4 herrialdeetan antzeko errealitateak dituztelako eta LGTBI kolektiboak Erdialdeko Amerikan duen egoeraren adierazgarri egokia izan daitekeelako egin dugu 4 herrialde horietako egoeraren azterketa.

Diagnostikoaren helburu nagusia LGBTI kolektiboak 4 herrialde horietan duen testuingurua, kolektiboko pertsonen bizi duten errealitatea eta kolektiboaren giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeak eta haien borrokak eta apustuak zehaztea da.

Zehazki, honako alderdi hauek lantzen dira diagnostiko honetan:

- Lau herrialde horietako LGTBI kolektiboaren testuinguru orokorraren deskribapena.
- LGTBI kolektiboaren aldekoa izan daitekeen legeria ezagutarazi eta aztertzea.
- LGTBI kolektiboaren eskubideen urraketarik ohikoenak identifikatzea hainbat arlotan (lana, osasuna, hezkuntza eta aisia) eta herrialde bakoitzean.
- LGTBI kolektiboaren eskubideen alde diharduten erakundeen erreibindikazio-agenda eta lan-ildoak identifikatzea.
- Tokiko erakundearen nazioarteko babesaren premiak identifikatzea.

EL SALVADOR



Hiriburua: San Salvador

Gobernu mota: errepublika independentea

Biztanleria: 6.521.000 biztanle (2015)

Homosexualitatearen legezkotasuna:

El Salvadorko Zigor Kodeak ez du homosexualitatearen kontrako zigorrik aipatzen, eta estatu burujabe gisa eratu zenetik helduen artean adostutako egintza homosexualak inoiz kriminalizatu ez dituen Erdialdeko Amerikako herrialde bakarra da El Salvador. Sexu-baimenerako adina 15 urte da, bikote heterosexual zein homosexualentzat.

A. LGBTI KOMUNITATEAREN EGOERA EL SALVADORREN

“El Salvadorren, sexu-orientazioari, genero-identitateari eta genero-adierazpenari lotutako giza eskubideen urraketak orokorrak dira eta oso errotuta daude, eta LGBTI kolektiboak torturak, tratu txarrak, erasoak, sexu-bortxaketak eta gorroto-krimenak (erailketak) jasaten ditu. Indarkeria-patroi horiek areagotu egiten dira El Salvadorren gaur egun bizi den eta gaizkile taldeekiko arazoak, narkotrafikoa, pertsonen salerosketa eta segurtasunari lotutako beste alderdi larri batzuk dakartzan indarkeria-egoeraren ondorioz”.

(El Salvadorko trans emakumeen aurkako indarkeria-egoerari buruzko txostena Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren Audientziarako, hainbat trans erakundek eta beste hainbat erakundek aurkeztua). Washington DC, 2013ko urriaren 29a).

A. 1. GIZA ESKUBIDEEN TESTUINGURU OROKORRA

LGBTI komunitatearen giza eskubideen urraketak El Salvadorko herritar guztien giza eskubideentzat oso problematikoa den testuinguru orokor batean gertatzen dira.

El Salvador “erailketaren munduko hiriburua” dela esan ohi da. 2016. urtean, 5.478 pertsona hil ziren indarkeriaren ondorioz (hau da, 95 erailketa ehun mila pertsonako). Droga-trafikoari lotutako liskarrak eta gaizkile taldeen jardura daude indarkeria-tasa handi horien atzean.

Herrialdean giza eskubideen inguruan dauden arazo nagusien artean, honako hauek aipa daitezke: judizioz kanpoko homizidioak, segurtasun-indarren tratu ankerra, oinarrizko askatasunen murrizketak eta pertsonen salerosketa. Poliziek maiz urratzen dituzte giza eskubideak. 2015. urtean, Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradoretzan (PDDH) salatutako urraketan % 64 Polizia Nazional Zibileko (PNC) kideek egin omen zituzten.

Emakumeen aurkako indarkeria ere arazo larria da. 2016. urtean, 520 emakume erail zituzten, hau da, 2015ean baino % 60 gehiago. Errepublikako Fiskaltza Nagusiak jakinarazi zuenez, feminizidio-delituari lotutako 318 espediente ireki zituen urte horretan.

Segurtasun publikorako estrategia eraginkorrik ezak eta PNCren finantzaketa eta trebakuntza egokirik ezak zaildu egiten dute giza eskubideen kontrako abusuak eta beste delitu batzuk egiten dituzten pertsonak identifikatzea, atxilotzea eta epaitzea. Horren ondorioz, herritarrek konfiantza txikia dute justizia-sisteman.

A. 2. LEGERIA ETA POLITIKA PUBLIKOAK: ARGIAK ETA ITZALAK

Argiak

Homosexualitatea ez dago kriminalizatuta El Salvadorren. El Salvadorko Konstituzioak pertsonen bizitzeko eta osotasun fisikorako duten eskubidea babesten du. Halaber, pertsona guztiak legearen aurrean berdinak direla ezartzen du 3. artikuluan, baina sexu-orientazioa eta genero-identitatea ez ditu bereziki babestu beharreko kategorietan sartzen.

Dena dela, Justizia Gorte Gorenak 2009. urtean babes-errekurtso bati buruzko erabaki batean ezarri zuenez, 3. artikuluan jasotako babesen zerrenda ez da zorrotza, adierazgarria baizik, eta, beraz, esplizituki aipatutako kategoriak ez dira diskriminazioaren aurkako babesaren oinarritzat har daitezkeen bakarrak. Gainera, espezifikoki adierazi zuen **oinarrizko eskubideez gozatzeko aukera sexu-orientazioan oinarrituta ukatzea Konstituzioaren aurkakoa dela**, baita El Salvadorrek nazioartean dituen betebeharren aurkakoa ere (adierazi beharra dago trans kolektiboek Estatuak diskriminazioaren aurka babesteko duen betebeharra genero-identitatera eta genero-adierazpenera zabaltzeko eskatzen dutela).

Araudi orokor horretan oinarrituta, 2009. urteaz geroztik El Salvadorko botere betearazlea izan duten ezkerreko gobernuek eta botere legegileak hainbat neurri positibo hartu dituzte LGBTI komunitatearen giza eskubideak babesteko:

- 2009. urtean, San Salvadorko Udal Kontseiluak, alkatea Violeta Menjívar (FMLN) zelarik, **maiatzaren 17a “Genero-orientazio eta genero-identitateagatiko diskriminazio mota ororen aurkako Udal Egun” deklaratu zuen.**
- Halaber, 2009. urtean, **Osasun Ministerioak “sexu-orientazioagatiko diskriminazio mota oro desagerraraztea” erabaki zuen**, eta erabakia administrazio-bulegoetan, ospitaleetan, osasun-unitateetan, osasun-etxeetan edo osasun-sareko arreta publikoko beste edozein zentrotan lan egiten zuten osasun-langileei zuzenduta zegoen, sexu-orientazioagatik inor diskrimina ez zezaten.
- 2010. urtean, Mauricio Funes presidentek Administrazio Publikoan sexu-orientazioagatik eta/edo genero-identitateagatik diskriminatzea debekatzen duen **56. Dekretu Betearazlea** sinatu zuen. Hala ere, dekretua ez zaie aplikatzen botere judizialari, botere legegileari eta tokiko gobernuen erakundeei, eta ezin da Lanaren Kodera eta Zerbitzu Zibilaren Legea zabaltzeko, lege tertziarioa baita.
- Halaber, 2010. urtean, gobernuak **Sexu Aniztasunaren Zuzendaritza** sortu zuen Gizarteratze Idazkaritzaren barruan, LGBTI kolektiboko kideei herritarren oinarritzko giza eskubideak, eskubide ekonomikoak, sozialak, zibilak eta politikoak bermatuko zizkieten politika publikoak bultzatzeko eta homo-lesbo-transfobiarik eta sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko ezein diskriminaziorik gabeko zerbitzu eta guneen sorkuntza sustatzeko, bertan pertsona guztiak duintasunez eta errespetuz trata daitezten.
- 2011n onartutako **Emakumeak Indarkeriarik gabe Bizitzeko Lege Berezi Integralak** emakume orok indarkeriarik gabeko bizitza baterako duen eskubidea bermatzen du, eta diskriminazioa debekatzen du legearen aplikazioan. Gainera, sexu-identitatea esplizituki jasotzen du diskriminazioaz babestutako kategorien artean.
- 2011. urtean onartutako eta CEDAW konbentzioaren printzipioei jarraikiz formulatutako **Berdintasunari, Ekitateari eta Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteari buruzko**

Legeak emakumeen aurkako diskriminazioa debekatzen du. Hala ere, PDDHak eta Nazio Batuen Garapenerako Programak (UNDP) 2013. urtean adierazi zutenenez, lege horrek “ez ditu aitortzen trans emakumeen desabantaila sozial eta ekonomikoak, eta ez du irizpiderik ezartzen bere baitan trans pertsonak eta LGBTI komunitateko beste kide batzuk jasotzeko”.

➤ 2013. urtean, Gizarteratze Idazkaritzak **Sexu Aniztasunari lotutako Laguntza eta Arreta Ildoa** sortu zuen. Ildo horrek 131 telefono-zenbakiarekin funtzionatzen du, eta aholkularitza psikologikoa eta lege-arlokoa eskaintzen du. Gaur egun, bulego-orduetan baino ezin da erabili 131 zenbakia.

➤ Halaber, 2013. urtean, Sexu Aniztasunaren Zuzendaritzak **Sexu-aniztasunari buruzko autoprestakuntza-eskuliburua** landu zuen, segurtasun publikoko erakundeetako langileei zuzenduta (Segurtasun Publikoko Akademia Nazionaleko eta PNCKo kideei). Dokumentu horretan, LGBTI komunitateko kide izatearen esanahiari buruzko oinarritzko kontzeptu batzuk, mito eta errealitateei buruzko atal bat ("gizon gayak haurren erasotzaileak dira", dio eskuliburuaren bidez desagerrarazi nahi den mitoetako batek) eta generoarekin sentikorrek diren prozedurei eta sexu-aniztasunari buruzko gomendioak (hala nola LGBTI kolektiboko kideen aurkako indarkeria, mehatxu edo jazarpenen kasuetan agenteak proaktiboak izatea edota kolektibo horretako presoentzako kartzela-gela bat egokitzea) daude jasota.

➤ 2014. urtean, **Lan Ministerioak leihatila berezi bat ireki zuen** LGBTI komunitateak egungo sei “Emakume Hiritan” plaza hutsak bete ahal izan zitzaizkien. Ministerioak sexu-aniztasunari lotutako pertsonen kaleratzeen jarraipena egiten du Administrazio Publikoan, eta enplegu-feriak antolatzen ditu.

➤ 2015. urtean, gorrotoari lotutako krimen eta mehatxuengatiko zigorrak handiagotzea lortu zuen LGBTI kolektiboak. **Zigor Kodean aldatutako 129. artikulua** gorroto-krimena tipifikatzen du, eta 60 urtera arteko espetxe-zigorrak ezartzen ditu arrazan, etnizitatean, erlijioan, afiliazio politikoan, genero-identitate eta/edo genero-adierazpenean eta sexu-orientazioan oinarritutako gorrotoaren ondoriozko homizidioen kasuan. **155. artikulua** zigor gogorragoak ezartzen ditu adierazitako kategorietan oinarritutako gorrotoaren ondoriozko mehatxuen kasuetarako.

➤ 2016. urtean, Osasun Ministerioak **“LGBT kolektiboko kideen osasun-arreta integralerako ildo teknikoak”** onartu zituen, eta LGBTI gaixoentzako arreta espezifikoa bideratu zuen osasun-unitateetan, “zerbitzu hobea emateko, genero-identitatea babestu eta errespetatzeko eta diskriminazioa saihesteko”. 2017. urtean kolektibo lesbiko batzuek adierazi dutenez, “LGBTI pertsonentzako osasun-arreta espezifikokoaren protokoloa ez da aplikatzen ari”.

➤ 2017ko urtarrilean, **GIBak eragindako Infekzioaren Prebentzio eta Kontrolari buruzko Lege berria** jarri da indarrean. Lege horren helburua sektore publikoan zein pribatuan biztanleen osasuna zaintzea eta, horretarako, GIBa duten pertsonen arreta integralerako legeria giza eskubideak errespetatzeko ikuspegiarekin eguneratu eta sendotzea da. Hala ere, GIBari lotutako gaiak lantzen dituzten LGBTI erakundeen ustez, onartutako legea “oso murriz eta light” geratu da, eta ez die erantzuten beren eskariei. Horregatik, erreforma-proposamenak aurkeztuko dituzte.

Hiru itzal juridiko handi

➤ El Salvadorrek ez du talde marjinalizatuak eta kalteberak (LGBTI pertsonak barne) babesten dituen **diskriminazioaren aurkako lege orokorrik**, baina Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna berretsi du (eta LGBT pertsonen diskriminazioaren aurkako babesa txertatzeko interpretatu du itun hori).

- Familia Kodearen arabera, “ezkontzaren, ezkontzaz kanpoko loturaren edo ahaidetasunaren ondorioz eraturako gizarte-talde iraunkorra” da familia, eta ezkontza, berriz, “gizon eta emakume jaiotako bi pertsonaren lege-lotura, bizitza-komunitate iraunkorra eta erabatekoa ezartzeko helburua duena”. **Ezkontzaren definizio horrek baztertu egiten ditu sexu bereko pertsonen arteko, gizon jaiotako pertsona baten eta emakume transexual baten arteko edota emakume jaiotako pertsona baten eta gizon transexual baten arteko ezkontzak edo lotura zibilak.**

Ezkontzaz kanpoko lotura, berriz, "ezkontzeko lege-eragozpenik izan gabe gutxienez hiru urtekoaldi batean bizitza askatasun osoz elkarrekin eta era berezi, jarraitu, egonkor eta nabarian egiten duten gizon baten eta emakume baten arteko lotura" da. Beraz, LGBTI pertsonak ezartzen dituzten bikote-harremenek ez dute lege-babesik ondare-alderdiei eta alderdi pertsonalei dagokienez, eta ez da onartzen ezein ahaidetasun mota LGBTI bikotekideen artean. Halaber, “adopziozko seme-alabatasunari” buruzko artikuluen arabera, sexu bereko pertsonak osaturako bikoteek edo transexual batekin osaturako bikoteek ezinezkoa dute adoptatzea.

- **Era beran, ez dago genero-identitateari buruzko legerik**, nahiz eta, trans erakundeen Latinoamerikako sareak (REDLACTRANS) adierazi duenez, “trans pertsonen lege-aitorpenik eza komunitate horrek bazterkeria, marjinazioa eta diskriminazioa jasan izanaren arrazoi nagusietako bat den”.

A. 3... ETA ITZALIK HANDIENA: GORROTO-KRIMENAK ETA JUSTIZIARA JOTZEKO (EZINEZKO) AUKERA

Zigor Kodearen 129. eta 155. artikulua 2015ean erreformatu ziren gorrotoari lotutako krimen eta mehatxuengatik zigorrak handitzeko, baina **praktikan ez dira aplikatu**. COMCAVIS TRANS erakundeak zuzendari Karla Avelarrek 2016. urtean adierazi zuenez, “Kongresuak erreforma horiek onartu zituenetik, LGTBI kolektiboko 40 kide baino gehiago erail dituzte, eta, orain arte, Fiskaltza Nagusiak, Polizia Nazional Zibilak eta Gorte Gorenaren Lege Medikuntzako Institutuak ez dute astungarri berezi bihurtu LGBTI izaera. Gainera, Fiskaltzak ez dauka gorroto-krimenak behar bezala ikertzeko eta haiei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak, ezta zigor-sistemak horretarako beharrezkoa den esperientzia eta trebakuntza ere”.

Gizarte-erakundearen erregistroen arabera, El Salvadorko hiru hiririk handienetan (San Miguelen, Santa Ana eta San Salvadorren) LGBTI komunitateko 6.000 kide inguru daude. Herraldean, **600 gorroto-krimen gertatu dira azken 23 urteetan**, hau da, esan daiteke adierazitako 3 hirietan bizi diren LGBTI pertsonen % 10 inguru erail dituztela El Salvadorko gerra zibila amaitu zenetik (1992. urtetik) orain arte.

2014. urtean, Giza Eskubideen prokuradore David Moralesek eta Nazio Batuen El Salvadorko koordinatzaile ohi Roberto Valentek salatu zuten aurreko hamar urteetan gorroto-krimenen kopurua % 400eko proportzioan handitu zela, eta LGBTI pertsonen erailketa askotan **torturaren ebidentzia** ikusi zela azpimarratu zuten. Bestalde, Karla Avelarrek dioenez, segurtasun-indarrak eta gaizkile taldeak dira “LGBTI komunitateko kideen hiltzaile nagusiak”, eta erailketen ezaugarri bereizgarri nagusiak “basakeria eta ankerkeria handia eta biktimek (gehienak emakume transgeneroak) tortura jasan izanaren ebidentzia dira (zenbaitetan sexu-organoak moztzen dizkiete eta jendaurrean jartzen dituzte); ekintza horiek agerian uzten dute El Salvadorko gizartean dirauten aurreiritzien maila handia”.

LGBTI komunitateko kideen erailketa eta erasoen % 95 ez dira judizializatzen, eta zigorrik gabe geratzen dira

Alex Peña trans aktibista eta San Salvadorko Udaltzaingoko (CAM) kidea da, eta era basatian jo zuten bi poliziak 2015eko ekainaren 28ko Martxatik itzultzean. Lehen aldiz, eta salbuespena izan bazen ere, kasua ikertu egin zen (udaltzaina zelako beharbada), eta bi poliziek 4 urteko espetxe-zigorra jaso zuten.

Poliziaren eta justiziaren sektoreetan nagusi diren aurreiritziek eta homo-lesbo-transfobiak larriki oztokatzen dute LGBTI kolektiboak justiziara jotzeko aukera. Hainbat azterlanek azpimarratu dutenez (ESMULES kolektibo lesbikoak 2014an egindako “El Salvadorko polizia-indarrek LGBTI pertsonen aurrean agertzen dituzten jarreraren ebaluazioa” azterlanak, adibidez), PNCKo kide gehienek uste dute LGBTI pertsonak ez lituzketela izan behar gainerako herritarren eskubide berak; zehazki, elkarrizketatutako polizien % 57k uste dute LGBTI pertsonak gaixo mentalak direla, eta % 26k baino ez lituzkete lankide gisa onartuko LGBTI pertsonak.

2017ko otsailean, diagnostiko honen landa-lana hasi berria zela, 3 trans emakume erail zituzten La Paz Departamentuan: Yasuri Orellana, Daniela Rodríguez eta Elizabeth Castillo (azken hori aurreko bien hiletan egon ondoren bahitu eta erail zuten, San Luis de Talpako hirian). LGBTI erakundeek prentsurreko batean adierazi zuten, hiri horretan “dagoeneko ez da trans emakumerik bizi, denak Mexikora joan baitira egun hauetan”.

GIB/Hiesari buruzko Nazio Batuen Programako (UNAIDS) ordezkariek eta Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak (IOM) gaitzetsi egin zituzten erailketa horiek, eta, adierazi zuten, “persona horiek, jasaten duten diskriminazioa dela eta, **migratzaile irregular bihurtzeko arriskua** dute, eta migrazio-ibilbidean kalteberak izango dira pertsonen trafikoaren eta egitura kriminalen aurrean”. El Salvadorko aktibistek azpimarratu dute LGBTI pertsonen migrazio behartuak gora egin duela azken urteetan: “LGBTI pertsona asko desplazatu egiten dira herrialdearen barruan, eta beste batzuek herrialdetik ihes egiten dute mehatxuetatik eta indarkeriatik urruntzeko”.

Amerikako Estatuaren Erakundearen (AEE) Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) behin eta berriz agertu du kezka handia sexu-orientazioagatik erasoak jasaten dituzten –eta hiltzen dituzten– pertsonengatik, legez kontrako egintza horiei buruzko ikerketen kopuru txikiagatik eta pertsonak sexu-orientazioaren arabera diskriminatzeke erabiltzen dituzten udal-mailako xedapenengatik (“Ordenantza Kontrabentzionalak”). 2017ko martxoaren 21ean LGBTI pertsonen giza eskubideen egoerari buruz egindako Audientzian, Batzordeak adierazi zuen **2017an LGBTI pertsonen aurka egin diren 17 gorroto-krimenen** berri izan zuela.

Audientzia horren aurretik, PDDHak “LGBTI pertsonen aurkako gorroto-krimenen egoerari buruzko lehen txostena” argitaratu zuen 2017ko martxoaren 2an. Txosten horren arabera, “LGBTI pertsonen eskubideei buruzko Mahai Iraunkorra osatzen duten erakunde eta aktibista independenteen laguntzarekin, PDDHak LGBTI pertsonen aurkako 19 homizidio egiaztatu ditu 2009tik 2016ra bitarte, eta homizidio horiek egiteko modua kontuan hartuta, gorroto-krimenak izan diren zantzuak daude”.

PDDHak berak planteatzen duenez, “ikerketa honi esker, esan dezakegu **LGBTI pertsonen egoerak ez duela aldaketa esanguratsurik izan El Salvadorren**. Izan ere, planteatutako kasu gehienak ikertzen ari dira oraindik, eta, beraz, ez dira judizializatu. Horregatik, Prokuradoretza honek azpimarratu nahi du beharrezkoa dela eraginpean hartutako pertsonen instantzia eskudunen erantzuna jasotzea, **persona horiek justiziara jotzeko duten aukerarik eza eta haien inguruko zigorgabetasuna desagerrarazten laguntzeko**”.

Datuekin dagoen arazoa

Ez dago datu ofizialik gorroto-krimenei edo LGBTI pertsonen aurkako aurreiritziak eragindako indarkeriari buruz. Zaila da zehatz-mehatz jakitea gorroto-krimenek LGBTI pertsonen artean eragindako biktimen kopurua, agintariak ez baitute genero-identitatea edo sexu-orientazioa zehazten pertsona horiek erregistratzen dituztenean.

PDDHak adierazitako egoera-txostenean azaltzen duenez, “ikerketak hainbat zailtasun izan ditu aurrean, hala nola **LGBTI biktimen ikusezintasuna** agintari eskudunek **hildako pertsonen buruz emandako estatistika ofizialetan**. Gainera, gure herrialdeak ez du LGBTI pertsonen sexu-orientazioaren, genero-identitatearen eta/edo genero-adierazpenaren araberako erregistro espezifikorik, eta gizon eta emakume gisa sailkatzen dituzte beti”.

A. 4. TRANS PERTSONEN ESKUBIDEEN URRAKETA ESPEZIFIKOAK

Identitate pertsonala eta izena edukitzeko eskubidea

2012. urtean trans emakumeen egoerari buruz egindako txostenean¹ adierazten denez, Pertsona Naturalen Erregistro Nazionalak (RNPN) ez du legez aitortzen pertsona orok –trans emakumeak eta trans gizonak barne– bere dokumentu ofizialetan agertzen den izen eta argazkiaren eta bere identitate eta genero-adierazpenaren arteko koherentzia lortzeko duen eskubidea. Izenari buruzko Legeak ezartzen du “izen propioaren aldaketa eskatzeko eskubidea, sexuari dagokionez ekibokoa denean”, baina transexualei, transgeneroei eta intersexualei ez die aukerarik ematen beren burua identifikatzeko erabiltzen duten izena eskuratzeko.

Trans emakumeen % 42k adierazi dutenez, arazoak edo eragozpenak izan dituzte Nortasun Agiri Bakarra (DUI) edo beste identifikazio-dokumentu bat erabili dutenean, haien genero-identitatea ez baitator bat dokumentuan agertzen den argazkiarekin. Batzuek, gainera, arazoak izan dituzte zenbait izapide egitean, hala nola herentzia bat jasotzean, mailegu bat eskatzean, zordunketa-txartel batekin ordaintzean eta pasaportearen erabiltzean. Beste trans emakume batzuek adierazi dute lekukoak eskatu izan dizkietela dokumentuaren jabeak direla frogatzeko, eta gizonak eta emakumeak bereizten dituzten instantzietan, gizonen taldeetan jarri dituzte. Bestalde, trans emakumeen % 70 inguruk zailtasunak izan dituzte Estatuak egiten dituen nortasun-agiriak izapidetzean.

Lanerako eskubidea

Trans emakumeen % 85ek sexu-lanean dihardute edo jardun dute bizirauteko, eta % 45ek 180 US \$-tik beherako diru-sarrerak dituzte hilean. Gainera, % 40k lan informalak egiten dituzte, hots, gizarte-onurarik gabe (hala nola kosmetologo- edo merkatari-lanak azoketan eta kalean), % 5ek baino gutxiagok egiten dute lan enpresa pribatuetan, eta % 10 langabeak dira.

Trans emakumeek diote beren genero-adierazpenak zailtasunak dakarziela enplegu formal bat lortzeko, ia erakunde publiko eta pribatu guztiek ukatu egiten baitiete lan egiteko eskubidea.

¹ “El Salvadorko trans emakumeen giza eskubideen egoerari buruzko txostena”. PDDH eta UNDP. 2012ko apirila (lehen edizioa).

Hezkuntzarako eskubidea

Trans emakumeen ehuneko handi samar bat **hezkuntza formalera** iristen bada ere, bigarren hezkuntza (batxilergoa) amaitzen dutenen proportzioa % 36 baino ez da, eta % 4 baino ez dira goi-mailaren batera iristen (maila teknikora edo unibertsitate-mailara). Eskola uzten duten trans emakumeen kopurua oso handia da, gaueko ordutegian baino ezin baitute ikasi (beste ordutegi batzuetan ez dituzte onartzen). Halaber, % 48k diote eskolako edo institutuko irakasleen eta beste langile batzuen aldetik diskriminazioa, bazterkeria, indarkeria edo jazarpena jasan izan dutela genero-identitateagatik.

Osasunerako eskubidea

Pertsona guztiek osasun fisiko eta mentalaren mailarik handienaz inolako diskriminaziorik gabe gozatzeko eskubidea dutela aitortzen bada ere, Osasun Kodean ez da transen (transsexual, transgenero eta trabestien) genero-identitatea aipatzen, eta horrek eragotzi egin du trans emakumeentzako osasun-zerbitzu espezializatuak sortu eta abian jartzeko aukera.

Trans emakumeek ezin dituzte jaso generoa berresleitzeko beharrezkoak diren tratamenduak, eta beren kabuz genero-trantsizioa egiten ari direnek ere ez dute orientaziorik jasotzen. El Salvadorko trans emakumeak medikuen babesik gabe autohormonatzen dira.

Osasun Kodeak ez du debekatzeko genero-identitatea osasun-nahasmendutzat hartzea, ezta genero-identitatea tratatu, sendatu, aldatu edo desagerrarazteko jardunbide mediko eta psikologiko kaltegarriak –eta nahitaezkoak– ere. Era berean, ez du debekatzeko sexu- edo genero-identitate bat inposatzeko prozedura mediko eta kirurgikoen bidez haur intersexualen gorputzean alterazio atzeraezinak egitea.

Gizarte-prestazioak jasotzeko eskubidea

Gizarte Aseguruaren Legeak (ISSS) eskubidedunaren mendeko pertsonentzako onurak, pentsioak, kuotak eta beste zerbitzu batzuk ezartzen ditu. Baina horiek guztiak ez dira legítimoak trans emakumeen familia-harremanen kasuan. Izan ere, ez datoz bat Familia Kodean estipulatutako kontzeptuekin, eta eskubidedunen bikotekideak diren trans emakumeak (eta alderantziz) baztertuta geratzen dira.

Segurtasunerako eta indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea

Adierazitako txostenean adierazten denez, **trans emakumeen % 53k heriotza- edo indarkeria-mehatxuak jaso dituzte**, nagusiki transfobiaren eta gaizkile taldeek sexu-lanerako inposatutako estortsioaren ondorioz. Halaber, azterlan horretatik ondoriozta daitekeenez, trans emakumeen % 46k beren bizitzaren edo osotasun fisikoaren aurkako atentatuak jasan dituzte, batez ere komunitatean, kalean, leku publikoetan (hala nola azoka, parke edo autobus-terminaletan), espetxeetan eta abar.

Preso dauden edota PNCren delegazioetako ziegetan atxilotu dituzten trans emakume batzuek aipatu dute jo eta zauritu egin dituztela gizon presoekin, atxilotuekin eta zaintzaileekin sexu-harremanak eduki nahi ez zituztelako. Halaber, adierazi dute erasotzeko edo hiltzen saiatzeko objekturik ohikoena honako hauek direla: arma zuriak (ganibetak), su-armak, objektu ebakitzaila eta mingarriak (harriak eta makilak) eta beste objektu batzuk, hala nola lakioak eta eskuak urkamendu bidez itozteko, ukabilak eta oinak jotzeko, eta substantzia jakin batzuk (piper-gasa, adibidez).

Ez dago trans gizonei buruzko azterlan espezifikorik

Azterlanik ez badago ere, trans aktibistek adierazi dute trans gizonek neurri txikiagoan jasaten dutela eguneroko diskriminazioa ikasteko edo lan egiteko garaian, emakume gisa ikasten edo lan egiten baitute. Agian horregatik, "trans gizon asko ez dira horrela autoidentifikatzen, lesbiana maskulino gisa baizik (butch)".

Halaber, diskriminazio bikoitza jasaten dutela sentitzen dute: alde batetik, gizartearena (transexualitate eta transgeneritate maskulinoari buruzko informazioz ez dagoelako), eta, bestetik, gainerako LGBTI kolektiboena (gay askoren matxismo eta falozentrismoaren, emakume lesbiana askoren onarpenik ezaren –“ez zaie gure genero-adierazpena axola, gure sexu-organoak baizik”– eta “topaketa feministetatik botatzen dituzten feminista erradikal” askoren onarpenik ezaren ondorioz. Trans gizonek ez dute sentimendu horietaz hitz egiten gainerako LGBTI kolektiboekin.

Azkenik, adierazi beharra dago ez dagoela trans gizonen erailketei buruzko estatistikarik. Izan ere, baldin badaude, feminizidio gisa geratzen dira erregistratuta. Hala ere, aktibistek egiaztatu dute trans gizonen erailketak ankerkeria bereziarekin egiten direla, “hiltzaileek ez baitituzte gizontzat hartzen, eta arrotzak dira beraientzat”.

5. HISTORIA LUZEA DUEN LGBTI MUGIMENDUA

LGBTI Mugimendua gaur egun inork ukatu ezin duen errealitatea da El Salvadorren. 25 urte baino gehiagotan, gizon gayen, lesbianen, trans emakumeen eta, azken urteotan, trans gizonen erakunde eta kolektiboek gizarte-mugimendu garrantzitsua osatu dute. Mugimendu horrek LGBTI pertsonen giza eskubideak zaindu, El Salvadorko gizartean nagusi diren sexualitatearen patroiz bitarrak eta genero-esentzialismoak zalantzan jarri, komunitate horren aurka gorrotoagatik eguneroko egiten diren eraso eta krimenak salatu, eta hainbat estrategia sustatzen ditu mugimendua bera ezagutarazteko, bere eskaerak agenda politiko nazionalera eramateko eta Estatuko erakundearen aurrean eragiteko.

El Salvadorko LGBTI mugimenduak azken urteotan gizarte-errekonozimendua lortu badu ere, haren historia ez da oso ezaguna oraindik. Duela gutxi historia hori idazten saiatu direnek² diotenez, lau “olatu” bereiz daitezke mugimendua sortzeko prozesuan. Lehena “sekretu politikoarena” da, eta 1976an hasi zen, San Salvadorren homosexualen sozibilitaterako gune bihurtu zen Oráculos diskoteka ireki zenean. Nolanahi ere, 80ko hamarkadak ez zituen baldintza sozial eta politiko egokiak ekarri LGBTI komunitatea antolatzeke, baina 1991. urtean, Bake Akordioak sinatu baino hilabete batzuk lehenago, hamar bat trabesti eta gay biltzen hasi ziren GIB/HIESari lotutako gaiak lantzeko, eta segurtasun-indarren mehatxuak jaso zituzten, homosexualitatea sustatzen zutela leporatuta.

Mugimenduaren bigarren olatua 1992. urtean hasi zen, gay eta trabesti talde horrek GIB/HIESaren inguruko Prebentziorako, Hezkuntzarako eta Pertsonen Laguntzeko Fundazio Nazional (FUNDASIDA) sortu berriak GIBaren arreta eta prebentziorako bultzatutako proiektu bat bere gain hartu zuenean. Lan horren ondorioz, **Entre Amigos Taldea** sortu zen 1994an. Lehen gay erakundea eta egungo erakunde batzuen hazia izan zen, eta kolektiboaren giza eskubideak defendatzeko helburuarekin sortu zen. 1997. urtean, Entre Amigos Taldeak Gay Harrotasunaren Martxa antolatu zuen lehen aldiz. Martxak parte-hartze handia eta protesta-izaera nabarmena izan zuen, eta El Salvadorko armadak 1980ko urrian eraildako 12 trans emakumeak gogoratu ziren.

² Palevi Gómez Arévalo, Amaral. Del orgullo gay a la Diversidad Sexual: organización de identidades sexuales disidentes en El Salvador. Diálogos Latinoamericanos, 25. zenbakia, 2016ko abendua, 99-116. or.

90eko hamarkadan, emakume lesbianek ere antolatzeke ahaleginak egin zituzten. 1992. urteaz geroztik bultzatu ziren gogoetagineen ondorioz, gerran jasandako indarkerien esperientzia pertsonalak ezagutu, identitate lesbikoari eta feminismoari buruz eztabaidatu eta topaketa- eta sozibilitate-jarduerak egin nahi zituzten lesbianez osatutako hainbat kolektibo sortu ziren (**Media Luna kolektibo lesbiko-feminista** izan zen aitzindaria). Kolektibo horiek garai hartako talde feministen aldetik lortu zuten onarpenaren eta agerikotasunaren erakusgarri, **Mujeres-94 Plataformak** (hots, urte hartako hauteskundeetan emakumeen erreibindikazioak entzunarazteko sortutako ekimen plural eta independenteak), eztabaida gogorren ondoren, honako eskaera hau jaso zuen: “berdintasunaren printzipioa Konstituzioan aipatzen ez diren sektore batzuetara zabaltzeko, hala nola desgaituen, sexu-aukera desberdina egin duten pertsonen eta talde etnikoen sektoreetara”.

Hirugarren olatua milurteko berriarekin hasi zen. Fase horretan, identitate eta erakunde berriak agertu ziren, eta tirabira handiak gertatu ziren ordura arte "mugimendu gay-lesbiko" deitu zenaren barruan. Trans emakumeak gay kolektiboetatik bereizi, eta emakume transexualen, transgeneroen eta trabestien erakunde propioak sortu zituzten, kolektibo horien premia espezifikoerantz erantzuteko. Hamarkada horretan sortu ziren egungo trans erakunderik esanguratsuenak, hala nola Asociación Salvadoreña para Impulsar el Desarrollo Humano (ASPIDH), Asociación Comunicando y Capacitando a Mujeres Trans con VIH (COMCAVIS-TRANS) eta Asociación Salvadoreña de Transgéneras, Transexuales y Travestis (ASTRANS).

Era berean, kolektibo lesbikoak gay eta trans mugimenduetatik argi eta garbi bereizten hasi ziren, GIBaren inguruko lana (mugimendu horien ardatz nagusia zena) ez baitzen lehentasunezkoa mugimendu lesbikoarentzat. Izan ere, mugimendu horren lanerako eta intzidentzia politikorako estrategiak gogoetara, ikerketara edo artera bideratuta zeuden. Antolamendu-dinamismo handiko urte haietan, hainbat kolektibo lesbiko sortu ziren, hala nola Renacer de la Luna taldea, Colectiva Lésbica Salvadoreña, Las Peperechas eta Las Desclosetadas. Horietako batzuek ez zuten interesik beste kolektibo batzuekin lan egiteko, eta, bereziki, gizon gayekin, gizonen nagusitasun-posizioaren pribilegioak erreproduzitzen zituztelakoan.

XXI. mendeko lehen hamarkadan erakundeek eta aktibismoak agertutako indarra areagotu egin zen sektore kontserbadoreek LGBTI komunitatearen eskubideen aurka egindako eraso politikoen ondorioz. 2003. urtean, sexu bereko pertsonen loturak eta adopzioa eragozteko Konstituzioaren erreforma eztabaidatu zen Parlamentuan, eta emaitza ez zen ona izan mugimenduarentzat. 2009. urtean, berriz, kontserbadoreek erreforma hori berresteko egin zuten ahalegin berriak LGBTI mugimendua batzea (Alianza para la Diversidad Sexual izenarekin) eta eremu publiko nazionalen eragile politiko gisa agertzea eragin zuen. Konstituzioaren erreformaren aurkako aktibismo handiaren ondoren, FMLN alderdiak erreforma babesteari utzi zion, eta erreforma ez zen berretsi.

Konstituzioaren erreformei aurre egiteko eta gorroto-krimenen kopuruaren gehikuntza salatzeke, garai bateko Gay Harrotasunaren Martxa zena, Ekainaren 28ko Batzordeak antolatuta, bonbamehatxuekin eta izen berriarekin (Sexu Aniztasunaren aldeko Martxa) atera zen San Salvadorreko kaleetara 2009. urtean.

Bi hamarkadatan antolamendu-prozesu erdiklandestinoak eta etengabeko gizarte-aktibismoa bizi izan ondoren, LGBTI mugimendua, 2010ean hasitako laugarren olatuan, gero eta errekonozimendu handiagoa jasotzen hasi zen Estatuko erakundearen aldetik. Horren erakusgarri, mugimenduak Estatuarekiko hainbat elkarrizketa- eta negoziazio-mahaitan parte hartu zuen, eta zenbait lorpen politiko izan zituen FMLN alderdia gobernura iristearekin batera, baina ez ziren nahikoak artean (txosten honen 2. atalean jasota daude).

Hala ere, LGBTI pertsonen (eta, bereziki, trans emakumeen) aurkako gorroto-erasoak eta gorroto-krimenak gero eta gehiago dira. Gainera, funtzionario publikoen, komunikabideen eta elizen

diskurtsoek areagotu egiten dute indarkeria hori. Izan ere, diskurtso horiek kontserbadurismoa eta heterosexismoa dute ardatz, homo-lesbo-transfobia naturalizatzen dute eta gorroto-kultura sustatzen dute.

Estatuak krimen horien aurrean agertzen duen utzikeriari aurre egiteko eta lorpen politikoak bizkortzeko, 16 LGBTI erakundek fronte komun bat (**LGBTI Elkarte Federatua**) osatuko zutela iragarri zuten 2017ko ekainaren amaieran, "haien eskubideen alde borrokatzeko eta gaur egun identifikatu dituzten mehatxuei aurre egiteko: indarkeriari eta desparekotasunari ez ezik, Giza Eskubideen Prokuradoretzari eta FMLN alderdiaren gobernuari ere bai (azken hori 'ultrakontserbadoretzat' hartzen dute)"³.

A. 6. LGBTI KOMUNITATEAREN ERREIBINDIKAZIO-AGENDA

El Salvadorko LGBTI komunitateak hainbat erreibindikazio komun ditu, baina komunitatea osatzen duten kolektibo bakoitza eskari espezifiko batzuen alde ere mobilizatzen da.

LGBTI agenda komuna

- Gobernuak kontuan hartzea CIDHeK 2017an El Salvadorko LGBTI pertsonen giza eskubideen egoerari buruz egindako audientziaren ondoren emandako gomendioak.
- 56. Dekretu Betearazlearen aplikazioa botere judizialaren eta botere legegilearen erakundeetara, tokiko gobernuetara, Lanaren Kodera eta Zerbitzu Zibilar buruzko Legera zabaltzea.
- Batzar Nazionalak berdintasunezko ezkontzari jarritako konstituzio-betoa ez berrestea, hau da, Familia Kodean ezkontzari ematen zaion definizioa ("gizon eta emakume jaiotako bi pertsonen legetura") ez berrestea.
- LGBTI pertsonak eta beste talde marjinalizatu eta kaltebera batzuk babestuko dituen diskriminazioaren aurkako lege orokor bat lantzea.
- Gizarteratze Idazkaritzan Sexu Aniztasunaren Kontseilua sortzea eta Sexu Aniztasunaren Zuzendaritza berriz abian jartzea.
- Irakasleen Lanari buruzko Legea erreformatzea, irakasle lesbianak, gayak, transexualak, transgenderoak eta intersexualak diskrimina ez daitezen.
- Polizia Nazional Zibilak polizia-etxeetan LGBTI pertsonentzako atal espezifikoak instalatzea.
- Ikuspegi integrala eta ez-salubrista izango duen GIBari buruzko lege berri bat egitea.
- Egungo Sexu Aniztasunaren Prokuradoretza Berezia gaitzestea (oso erlijiosoa da, ez dago abortuaren despenalizazioaren alde, ez du ezer jakin nahi GIB/HIESari buruz, eta inoiz ez da biltzen PDDHren LGBTI Mahai Iraunkorreakin). Mahai Iraunkorrean dauden LGBTI erakundeek bertan behera utzi zituzten bilerak Prokuradoretzak parte hartu arte.

³ "LGBTI Elkarte Federatua sortu da, defendatzeko... baita Prokuradoretzaz ere". El Faro, 2017ko uztailaren 8a.

Agenda lesbiko espezifikoa

- Emakume lesbianen aurkako gorroto-krimenak argitzea. Lesbianen erailketak erregistratzeko sistema hobetzea, gehienak feminizidio edo pasiozko krimen gisa erregistratuta geratzen baitira.
- Emakume lesbianek osasun-arretan egunero jasaten dituzten diskriminazio ugariak desagerraraztea eta emakume horiei laguntzeko protokolo espezifiko bat lantzea.
- Kolektibo lesbikoen prestakuntza feminista areagotzea, taldeak indartzeko eta herrialdean zein Erdialdeko Amerikan sare bat sortzeko bidea izan daitekeelakoan.
- Lan-eremuari, osasun-arretari, kredituak eta etxebizitza lortzeko aukerari, seme-alabek eskolan jasaten duten diskriminazioari, mantenu-pentsioei eta abarri lotutako erreibindikazio lesbikoen gutxieneko agenda bat lantzea.
- Kolektibo lesbikoen Estatuko erakundeetan eraturako LGBTI mahaietan duten parte-hartzea areagotzea, haien erreibindikazio espezifikoak ere kontuan har daitezen.

Trans agenda espezifikoa

- Trans pertsonen giza eskubideak erabat babestuko dituen Genero Identitateari buruzko Lege bat lantzea. Lege horrek beren genero-identitatearekin eta genero-adierazpenarekin bat etorriko diren dokumentuak izatea ahalbidetu beharko lieke trans pertsoneri.
- Trans emakume eta gizonen aurkako gorroto-krimenak argitzea. Trans pertsonen erailketak erregistratzeko sistema hobetzea, gehienak homizidio edo feminizidio gisa erregistratuta geratzen baitira.
- Trans pertsonen genero-identitate eta/edo genero-adierazpenagatiko lan-diskriminazioaren debekua trans pertsonen senide eta bikoteengana zabaltzea.
- Trans pertsonen osasun-arretan egunero jasaten dituzten diskriminazio ugariak desagerraraztea eta trans pertsoneri laguntzeko protokolo espezifiko bat lantzea. GIBaren prebentziorako trans emakumei zuzendutako eta giza eskubideen ikuspegian oinarritutako lana hobetzea.
- Hezkuntza Ministerioak titulu akademikoetan “trans emakumea edo gizona, honako izen honekin identifikatzen dena: (aukeratutako izena)” gainera dadin bultzatzea, trans pertsonen egindako ikasketak aintzatets daitezen. Eskolako bullinga desagerraraztea.
- Gobernuak kontuan hartzea CIDHek 2013an El Salvadoroko trans emakumeen aurkako indarkeriaren egoerari buruz egindako audientziaren ondoren emandako gomendioak.
- Gobernuak kontuan hartzea CEDAWko Batzordeak⁴ emakume lesbianeiei, bisexualei, transexualei eta intersexualei buruz emandako gomendioak:

42. Batzordeak kontuan hartuko ditu Zigor Kodearen zuzenketak, sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako gorroto-krimenengatiko zigorren areagotzea (Zigor Kodearen 129. eta 155. artikuluetan adierazitakoari jarraikiz) eta emakume horiek segurtasuna

⁴ El Salvador: azken oharrak. CEDAWren 66. bilkuraldia, 2017ko otsailaren 17a.

eta justiziara jotzeko aukera izateko laguntza-ildo baten eta gune baten sorkuntza. Hala ere, Batzordea kezkatuta dago emakumeek (LGBTI emakumeak barne) polizien aldetik jasaten dituzten jazarpen, mehatxu, larderia eta indarkerien kopurua gora egiten ari delako. Batzordea kezkatuta dago, halaber, LGBTI emakumeek gaizkile taldeen indarkeriaren aurrean agertzen duten kalteberatasunagatik eta haien senide, bazkide, enplegatu eta bezeroen aurkako indarkeriari buruzko txostenengatik.

43. Batzordeak honako gomendio hauek egiten dizkio Estatu Kideari:

(a) Polizien diskriminazioaren aurkako legeriaren betetzea bermatzeko mekanismoak abian jartzea, sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko gorroto-krimenak auzitaratzea eta, monitorizatzeko bidez, kasu horiek behar bezala ikertu eta zigortuko direla bermatzea;

(b) Emakumeek beren sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen arabera jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko ahaleginak areagotzea (herritarrak –oro har– sentsibilizatzeko ahaleginak barne), eta polizien) eta osasun-zerbitzuetako hornitzaileen gaitasun iraunkorraren garapena ziurtatzea.

A. 6. NAZIOARTEKO LAGUNTZA JASOTZEKO PROPOSAMENAK

Elkarrizketatutako pertsonen identifikatutako premiak

- 10 erakunde eta kolektibok osatutako **LGBTI Erakundeen Federazioaren** Plan Estrategikoa ezartzeko baliabideak. Plana baterako lanerako 4 ildo estrategikotan oinarrituta dago: Baliabideen kudeaketa, Auzi estrategikoa, Aliantzak eta LGBTI pertsonen giza eskubideen defentsa. Oraindik ez da argitara eman, eta 2017rako egongo da egina.

- CEPAL eta FNUAPA erakundeek antolatutako Populazioaren eta Garapenaren Eskualde Konferentziaren aurretik **Erdialdeko Amerika osoko bi bilera** egiteko laguntza. Sare feministak dagoeneko hasi dira Sexu eta Ugalketa Eskubideen aldeko Agenda lantzen Montevideoko Adostasunean oinarrituta, baina LGBTI erakundeak ezin izan dira bildu, eta, beraz, ezin izango dute agenda komun batekin eta ahots propioarekin parte hartu Konferentzian. FNUAP erakundeak ukatu egin zizkien bilerak egiteko baliabideak.

- LGBTI erakundeen **barne-sendotzea** lortzeko baliabideak, honako hauen bidez:

- LGBTI eskubideei eta feminismoari buruzko prestakuntza;
- politikan eragiteko eta kultura-aldaketak sorrarazteko trebakuntza;
- proiektuen formulazioari eta erakundeen jasangarritasunari buruzko prestakuntza;
- finantza-iturri espezifikoei buruzko informazioa;
- ikerketak;

LGBTI kolektiboei laguntzen dieten GKE batzuek (hala nola LAS DIGNAS eta ORMUSA izeneko GKE feministek) kolektibo horiei prestakuntza emateko giza baliabideak dituzte.

- El Salvadorko psikologoak eta sexologoak LGBTI pertsonen **sendatze-prozesuetan** laguntzeko trebatzea.

- LGBTI pertsonen aurkako **Indarkeriari buruzko Behatoki bat** sortzeko baliabideak (ASPIDH ARCOIRIS elkartearen antolatutako ahaleginetan ari da).

- **“Berdinen arteko” ikaskuntza-jarduerak** egiteko laguntza:

- El Salvadorko LGBTI kolektiboen arteko elkartrukeak;

- beste herrialde batzuetako trans gizonetikiko topaketak, hormonatzeko era ez-kaltegarriak eta genero-trantsizioa egiteko tratamenduak ezagutzeko;
 - beste herrialde batzuetako LGBTI kolektiboetikiko elkartrukeak, aldaketa juridikoen aldeko borroka lantzeko;
 - gorroto-krimenei aurre egiteko prebentzio eta autodefentsa kolektiboko estrategiei buruzko gogoeta eta informazioa;
 - LGBTI agenda politikoaren eguneratzea;
 - behatokien muntaketa eta funtzionamendua.
- El Salvadorreko LGBTI komunitatearekiko **elkartasun politikoa** gorroto-krimenen eta gorroto-erasoen kasuan, El Salvadorrek Euskadin duen Enbaxadaren eta Kotsulatuaren aurrean intzidentzia politikoa erabiliz.

GUATEMALA



Hiriburua: Ciudad de Guatemala

Gobernu mota: Errepublikak presidentzialista

Biztanleria: 16.051.208 biztanle (2014)

Homosexualitatearen legezkotasuna:

Helduen arteko homosexualitate pribatua, adostua eta ez-komertziala legekoa da Guatemalan 1871. urteaz geroztik. Baimenerako adina 18 urte da, eta berdina da denentzat, genero edo sexu-identitateagatik bereizketarik gabe.

B. LGBTI KOMUNITATEAREN EGOERA GUATEMALAN

“LGBTI aktibista gehienen ustez, aurrerapenik esanguratsuenak Guatemalako gizarte-sarean egin beharko dira, eta “anormal” bat bere etxetik botatzen ez duten, osasun-sistemak duintasunez tratatzen duen, enplegu bat diskriminaziorik gabe aukeratu dezakeen, delitu bat salatu dezakeen (lapurreta, bortxaketa zein homizidioa denean) eta erantzuleak auziperatzen diren, edota sexu-aniztasuneko kide izateak automatikoki eskubideak galtzea ekarriko ez duen egunean lortuko dira”. (Patricia Vargas. Visibles invisibles⁵)

B. 1. BERDINTASUNEZKO ARAUDIA... LGBTI PERTSONEI APLIKATZEN EZ ZAIENA

Guatemalak errealitate konplexua dauka: eskualdeko gizarterik kontserbadoreena eta desperekotasunik handienekoa da, bertako estatu-ereduak sistematikoki baztertzen ditu herri indigenak, emakumeak, LGBTI pertsonak eta haurrak, berandu iritsi da demokraziara, barne-gatazka armatu bat bizi izan du iraganean, giza eskubideen urraketa larriak egiten dira gaur egun, eta Bake Akordioak oso neurri txikian bete dira orain arte.

Konstituzioaren aginduz, Guatemalako Estatuaren betebeharra da herritarrei bizitza, askatasuna, justizia, segurtasuna, bakea eta garapen pertsonal integrala bermatzea. Lege-araudiaren eta erakunde publikoen bitartez, Estatuak pertsona guztiei bermatu behar dizkie konstituzio-eskubideak, “inolako diskriminaziorik gabe” (beraz, LGBTI pertsoneri ere bai).

Zenbait erakundek diotenez, ordea, arazoa ez da araudirik ez dagoela, LGBTI pertsonen kasuan aplikatzen ez dela baizik. Izan ere, jarraibide kultural, erlijioso eta moral jakin batzuek LGBTI komunitatea estigmatizatzen dute, eta eskubideak bete-betean erabiltzeko aukera eragozten diote. Halaber, herritarrek eta Estatuak erakundeek LGBTI pertsonak onartzen eta errespetatzen ez dituztenez gero, pertsona horiek bigarren mailako herritar gisa tratatzen dituzte herrialdean.

Beste erakunde batzuen ustez, berriz, pertsona horien eskubideen aldeko araudi espezifikoak sortu behar dira, komunitateak bizi duen kalteberatasun-egoera ezagutarazteko eta haien eskubideak formalki aitortzeko. Premia horren adibide bat diskriminazioa zigortzen duen Zigor Kodearen 202 bis artikulua aldatzeko beharra da, “sexu-orientazioa eta genero-identitatea” kategoriak diskriminaziorik ezaren xede gisa esplizituki jaso daitezen eta, era horretan, pertsona horiek “beste batzuk” kategorian ikusezin jarrai ez dezaten.

Guatemalako araudiaren ezaugarri berezi bat Konstituzioaren 46. artikulua da. Izan ere, artikulua horrek honako printzipio orokor hau ezartzen du: “giza eskubideen arloan, onartutako eta berretsitako itun eta konbentzioak barne-zuzenbidearen gaineratik daude”. Hori dela-eta, Guatemalako giza eskubideen arloan bere gain hartu dituen nazioarteko betebeharrei esker lortu dira eskubide batzuk LGBTI pertsonentzat.

⁵ The Blogue (2013). Abogados sin Fronteras de Canadá. www.asfcanada.ca/es/blog/post/visibles-invisibles/209

Guatemalako gobernuari Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren Aldizkako Azterketa Unibertsala (AAU) egin zaio 2008an eta 2012an. Halaber, Amerikako Estatuaren Erakundearen (AEE) Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrera (CIDH) eraman dute bi aldiz: 2012ko urrian, trans pertsonen identitateerako eskubideei buruzko audientzian, eta 2012ko azaroan, Guatemalako sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko diskriminazioari buruzko audientzian. Ebaluazio horietan, Guatemalako Estatuak LGBTI pertsonen eskubideen zaintzari dagokionez dituen betebeharrak zehaztu dira esplizituki.

Dena dela, eta Guatemalak Nazio Batuen “Sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko deklarazioa” sinatu eta AEEaren hainbat ebazpen babestu baditu ere, LGBTI pertsonak jasaten duten diskriminazio soziala eta instituzionala dramatikoak dira oraindik. Gainera, komunitate indigenaren aurkako diskriminazio arrazistaren eta emakumeen aurkako misoginiaren ondorioz, gizarte-talde horiek bereziki kalteberak dira LGBTI komunitateko kideak direnean.

Aktibista batek dioenez, “LGBTI kolektiboa ‘moralki zigortuta’ dago: diskriminazioa dago zerbitzu publikoak baliatzeko aukeran, baita erlijio-diskurtsoari jarraitzen dion gizarte matxista batek elikatzen duen gizarte-estigma bat ere. ‘Zigor moralek’ (eskutik helduta doan bikote gay bati garraio publikoa erabiltzea eragozten zaionean, adibidez) espetxe-zigorrek baino kalte handiagoa eragiten dute”.

B. 2. LGBTI PERTSONENTZAKO ERAKUNDEAK ETA POLITIKA PUBLIKO ESPEZIFIKOAK

“Jendea sentsibilizatzeko eta gu kontuan hartu eta errespetatzeko eskatzen genuen garaia atzean geratu da, eta orain berdintasunaren legea bete dadin lortu nahi dugu, Estatuak berdintasunez tratatzeko eta gure osotasuna ziurtatzeko betebeharra baitu”⁶.

Estatuak nazioarteko erakundearen aurrean aitortu du Guatemalan LGBTI komunitatearen eskubideak ez daudela espresuki aitortuta. Izan ere, Guatemalan 1871ko Erreforma Liberalaz geroztik homosexualitatea legezkoa bada ere, herrialdeak ez dauka LGBTI pertsonen aurkako araudi espezifikorik. Gainera, Guatemalako legeek ez dute sexu-orientazio edo genero-identitateagatiko diskriminazioa debekatzeko hainbat arlotan, hala nola enpleguan, hezkuntzan, etxebizitzan, osasunean eta edozein establezimendu publikotan jasotako tratuan.

Horren guztiaren ondorioz, LGBTI pertsonak gainerako herritarren eskubide berak badituzte eta, beraz, Estatuaren erakundeek lagundutako biztanleriaren barruan eta politika publiko guztietan formalki txertatuta badaude ere, praktikan ez dago mekanismo eraginkorrik benetako inklusioa lortzeko.

Horren adibide garbia da **Giza Eskubideen Politika Nazionalarekin** (2006-2015) eta 2007an onartutako **Giza Eskubideen Ekintza Plan Nazionalarekin** gertatu dena. Lehena gizarte-ekitatearen eta generoaren printzipioetan oinarrituta zegoen, eta Guatemalako herritar guztientzako aukera-berdintasunaren ikuspegiari jarraituko ziola ziurtatu zen. Bigarrenak, berriz, tratua-berdintasuna eta diskriminaziorik eza zituen printzipio gidari, besteak beste, eta zerbitzuen prestazioan sexu-orientazioagatik bereizketarik ez ezartzera bideratzen zituen erakunde publikoak. Printzipio orientatzaile horiek aurrerapausoak izan ziren LGBTI pertsonen eskubideen babesean, baina erakundeek diote inoiz ez dutela izan LGBTI komunitatearen eskubideei dagokienez iraganetik bereizteko moduko aplikazio praktikorik.

⁶ Carlos Romero, Sexu Aniztasunaren eta GIBaren Sare Nazionalako (REDNADS) koordinatzailea, 2015eko urtarrila.

LGBTI erakundeek hainbat urte daramatzate beren problematika esplizituki aipatu eta landu dadin eta horretarako politikak eta erakundeak diseina daitezten eskatzen, eta, hori lortzeko, erakunde publikoei presioa egiten diete edota gobernua giza eskubideen nazioarteko erakundeen aurrera eramaten dute.

CIDHen 2012ko Audientziaren ondoren hartutako konpromisoa betetzeko, gobernua **LGBTI politika publikoa** formulatzeko prozesuarekin hasi zen (“landu beharreko gai guztiak –osasunaren, hezkuntzaren eta justiziara jotzeko eta lana lortzeko aukeraren arloan bereziki– mobilizatzeko babesa”). Giza Eskubideen Batzorde Presidentzialak (COPREDEH) **Erakunde arteko Mahai Tekniko** bat sortu zuen, eta gobernu-erakunde bakoitzaren agendan txertatu beharreko LGBTI premiak jasotzen zituen dokumentu bat egin zuen Mahai horrek. Edonola ere, erakundeak oraindik eskatzen ari dira Mahaiak LGBTI erakundeek aurkeztutako eskaerak eraginkortasunez eta efizientziaz bete ditzan eta politika publikoa osatu, balidatu eta ezartzeko prozesua zuzen dezan.

2014ko apirilean, Giza Eskubideen Prokuradoretzak (PDH) **Sexu Aniztasunaren Defentsa Erakundea** (DDS) sortu zuen, eta honako funtzio hauek esleitu zizkion: LGBTI pertsonen giza eskubideen urraketen inguruko salaketak erregistratzea eta haien jarraipena egitea, pertsona horien aldeko legegintza-aldaketak eta politikak bultzatzea, eta erakundeetako langileak pertsona horiei laguntza espezifiko emateko eta gai horren inguruan sozialki sentikorrak eta lehentasunezkoak diren alderdiei buruzko ikerketa-lanak egiteko trebatzea⁷. “LGTB komunitateari ez zaio ezein eskubide aitortzen; bada jendea kezkatuta dagoena Defentsa Erakundea sortu zelako, eta homosexualen ezkontza, abortua edo sexu bereko bikoteek adoptatzeko aukera sustatuko dela diote, baina ez da egia”, adierazi zuen Defentsa Erakundeko zuzendari Gabriela Tuch abokatuak, 32 urtekoak, izendapena jaso zuenean⁸.

2014. urtean, Sexu Aniztasunaren eta GIBaren Sare Nazionalaren (REDNADS) eta Defentsa Erakundearen trebakuntza- eta intzidentzia-lanari esker, Polizia Nazional Zibilak (PNC) **salaketen erregistro-fitxa** aldatu zuen, eta Ministerio Publikoak (MP) gauza bera egin zuen **salaketak erregistratzeko eta ikerketa-espedituek prozesatzeko sistemekin**, guztietan trans pertsonak aukeratutako izena ager zedin eta, salatzailak nahi izanez gero, LGBTI pertsona gisa autoidentifikatzeko lauki bat txerta zedin. Horren guztiaren helburua LGBTI pertsonak salatzen animatzea, justizia-sistemara jotzen dutenen kopurua jakitea eta gorroto-delituak identifikatzea da. 2015eko lehen hiruhilekoan, PNCK biktimei laguntzeko dituen 53 bulegoetako langileek trebakuntza jaso zuten LGBTI pertsonak eraginpean hartzen dituzten kasuetan salaketak jasotzeko eta biktimei laguntzeko moduaren inguruan.

Era berean, hainbat erakunde Gobernazio Ministerioarekin egindako lanaren ondorioz, 2016. urtean hitzarmen bat sinatu zen Espetxe Sistemako agintariekin, **preso dauden LGBTI pertsonen giza eskubideak** errespetatzeko, komunitate horren aurkako indarkeria murrizteko eta funtzionarioek homofobia- eta transfobia-egoerak lantzeko dituzten ahalmenak sendotzeko. Aldez aurretik, hainbat diagnostiko landu ziren 7 espetxetan, baita preso dauden LGBTI pertsonen behar bezalako arreta eskaintzeko gutxieneko estandar eta jarraibide batzuk, homo-lesbo-transfobiarik gabeko espazio libreak lortzeko protokolo bat eta Espetxe Ikasketetarako Eskolarako prestakuntza-eduki berriak ere. Urte horretan bertan, Konstituzionaltasun Gorteak erabaki zuen preso dauden LGBTI pertsonen identitate-eskubidearen barruan genero-adierazpen bereziak txertatuta daudela. Horren ondorioz, eten egin zen trans emakumeek gizonetzkoen arropa janzteko eta gizonetzkoen orrazkerak erabiltzeko jasaten zuten presioa.

⁷ Bere garaian aipatu zenez, Sexu Aniztasunaren Defentsa Erakundea Suediak Guatemalan duen Enbaxadak finantzatzeko zuen, eta Guatemalako Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen Bulegoak administratuko zituen funtsak, Estatuak ez baitzen gai nazioarteko baliabideak taxuz erabiltzeko.

⁸ Gaur egun, Gabriela Tuch PDHaren Emakumearen Defentsa Erakundeko zuzendaria da, eta Sexu Aniztasunaren Defentsa Erakundeko kargua hutsik dago. LGBTI erakundeek haren kargu-uztea eskatu zuten, gaiarekiko sentikortasunik eta eraginkortasunik ezagatik.

Bestalde, nazioarteko erakundeen gomendioei erantzunez, 2016ko martxoan Pertsonen Erregistro Nazionalak (RENAP), bere agindua betez (*“persona naturalen identifikazio-eskubidearekiko eta hari datxezkion eta RENAPean inskribatu izanaren ondorioz pertsonak dituzten gainerako eskubideekiko errespetu mugagabea zaintzea”*), Erabiltzaileei Laguntzeko Protokoloa eguneratu zuen, bertako langileek LGBTI pertsonak errespetatu ditzaten eta pertsona horiek beren **nortasun-agiri pertsonalean** erabili ohi duten izena eta argazkia jarri ahal izan dezaten⁹. “Lorpen txikia dirudi beste herrialde batzuetako lorpenen aldean, baina duela gutxi arte ia pentsaezina zen Guatemalan”, adierazi zuen Trans-formación gizon taldeko koordinatzaile Alex Castillok.

LGBTI erakundeak, halaber, gizarte-onarpena lortzeko beste bataila batzuetan islatuta sentitu dira: 2016. urtean, **Sandra Morán diputatuak** bere eserlekua eskuratu zuen, eta lesbiana eta feminista dela argi eta garbi erakutsi duen emakume bakarra da gaur egun Guatemalako Kongresuan. Haren agendaren barruan, sexu-aniztasunaren komunitatea babesteko konpromisoa eta giza eskubideen, emakumeen eta haurren inguruko gaiak daude.

Estatuko erakundeetan lortutako aurrerapenak gorabehera, LGBTI pertsonen eskubide espezifikoek aitorpenean egindako aurrerapenak oso motelak eta urriak izan dira.

Bikotea eta familia osatzeko eskubidea

Kode Zibilak 78. artikuluan ezartzen duenez, “ezkontza gizarte-instituzioa da, zeinaren bidez gizon bat eta emakume bat legez elkartzen diren, irauteko asmoz eta elkarrekin bizitzeko, seme-alabak eduki, elikatu eta hezteko eta elkarri laguntzeko helburuarekin”. Definizio horretatik ondoriozta daitekeenez, pertsona bereko bi pertsona ezin dira ezkondu eta ezin dute lotura zibilik ezarri, eta, beraz, Estatuak ez die ezin babes bermatzen LGBTI pertsonen osatutako familiei¹⁰.

Legeetan adituak direnen arabera, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza onartzeko Kode Zibila aldatu beharko litzateke, baina Konstituzioarekin ez litzateke beharrezkoa izango, 47. artikuluan ez baitu sexua zehazten (**“Estatuak ezkontzaren lege-oinarrian, ezkontideen eskubideen berdintasunean, gurasotasun arduratsuan eta pertsonen seme-alaben kopurua eta seme edo alaba batetik besterako denbora tartea askatasun osoz erabakitzeak duten eskubidean oinarrituta sustatuko du familiaren antolamendua”**).

LGBTI erakundeak ez dira ados jartzen ezkontza homosexualaren lege-aitorpena elkarrekin bultzatzeko garaian eta sexu bereko pertsonen arteko loturei izena jartzeko garaian. Sexu bereko pertsonen legezko loturari ezkontza deitu behar zaiola uste dutenek argudiatzen dutenez, Konstituzioan familiaren babesa aipatzen duen artikulua zehazten du familiaren funtsa ez direla izateko loturak edo lotura zibilak, “ezkontzaren lege-oinarria” baizik. Iritzi horren aldekoak dira gay batzuk eta, batez ere, lesbiana asko.

LGBTI kolektiboko pertsona gehienek, berriz, ez dute arazo handirik lotura deitzeko, betiere bikote homosexualen eskubideak bermatzen badira. Batzuk, gainera, badirudi lotura zibila lortzearekin konformatzen direla: “herrialde honetan gazteen lege batean ere aurrera egin ezin bada, are zailagoa izango da berdintasunezko ezkontza lortzea”; “gaur egun berdintasunezko ezkontza aipatzea suizidio politikoa da”; “guretzat garrantzitsuagoa da legezko bermeak eta berme ekonomikoak lortzea ezkontza deitzea baino”.

⁹ Hala ere, oraindik beren sexu biologikoa markatu behar dute lauki batean, eta izena eta argazkia aldatzeko izapideek 500 euroko kostua dute. Horregatik, askok ezin izan dute aldatu oraindik.

¹⁰ Hala ere, Guatemalan ez da El Salvador eta Hondurasen bezala gertatzen. Herrialde horietan, “gizon” eta “emakume” esaten denean zer ulertu behar den zehazten dute legeek (“gizon eta emakume jaiotakoak” lehen kasuan, eta “naturalki izaera hori dutenak” bigarrenetan).

Azken urteetan egindako inkesta batzuek erakusten dutenez, gizartearen gehiengoak baztertu egiten du sexu bereko pertsonen arteko ezkontza¹¹. Sandra Morán diputatuak honako hau adierazi zuen 2015ean: “ulertzen dut politikari gehienek ezkontza homosexuala ez babestea. Nik berriz diot hori ez dagoela Guatemalako agendan, badira beste gai batzuk mahai gainean, hala nola lesbianen, homosexualen eta transen aurkako diskriminazioa eta indarkeria. Pertsona horien bizitza eraginpean hartzen duten arazo larriak dira, eta ezinbestekoa da oraintxe bertan erantzutea”. Garai hartan bertan, Gabriela Tuch defendatzaileak honako hau adierazi zuen: “esan daiteke ezkontza ez dela ezein LGBTI kolektiboren lehentasuna. Ez ditugu pertsona horientzako eskubide bereziak sustatzen; gure helburua pertsona horiei estigma kentzea eta haien inguruko aurreiritziak desagerraraztea da. Adibidez, jendeak uste du pertsona horien eskakizun nagusia ezkontzea dela, baina hori ez da egia”.

Nolanahi ere, 2016ko abenduan, Sandra Moránek iragarri zuen Kode Zibila aldatzeko proposamen bat adosten ari zela hainbat erakunderekin, bi pertsonen arteko lotura zibila legeztatzeko, sexua edozein izanik ere. Horrek aukera emango luke sexu bereko pertsonen osatutako bikoteen eskubide batzuk aitortzeko (bikotekidearen gaixotasunaren edo heriotzaren kasuan, adibidez).

Osasunerako eskubidea

Guatemalan, **GIBaren epidemia** herritar talde jakin batzuetan kontzentratuta dago. Herritar guztiak kontuan hartuta, intzidentzia-tasa % 1 baino txikiagoa da, baina % 4ra iristen da sexu-langileak diren emakumeen kasuan, % 8ra gay gazteen kasuan eta % 11ra gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonen (GSG) kasuan. Trans emakumeei dagokienez, 2014an tasa % 15etik % 24ra bitarte izan da, neurketa-sistemaren arabera.

2000. urtean, **GIB/HIESari aurre egiteko Lege Orokorra** onartu zen. Lege horrek debekatu egiten du GIB/HIESarekin bizi diren pertsonen diskriminazioa, eta gaixotasun horien inguruko heziketa, prebentzio, zaintza epidemiologiko, ikerketa, arreta eta jarraipenerako mekanismoak sortzen ditu. Osasun Publikoko eta Gizarte Laguntzako Ministerioak (MSPAS) STIen, GIBaren eta HIESaren Prebentzio, Arreta eta Kontrolerako Plan Estrategiko Nazionala garatu du. Planak Mundu Funtsaren diru-laguntza jaso du, eta arriskurik eta kalteberatasunik handieneko herritarrengana (hots, GSG, sexu-langile eta trans pertsonengana) zuzentzen ditu bere jarduerak. Edonola ere, trans emakumeen kasuan, jardueren estaldura % 30era baino ez zen iritsi 2014an.

LGBTI erakundeek prebentzio-jardueren eraginari buruzko ebaluazioak zehatzak ez direla diote, eta eskuragarri dauden baliabideak areagotzeko eta hobeto banatzeko eskatzen dute. 2015eko uztailan, gobernuak konpromisoa hartu zuen epidemiaren kontrolean aurrera egiteko, eta 2016ko abenduan gehiago ziren tratamendua jasotzen zutenak (18.000 pertsona, infektatuta dauden 47.800etatik). Nolanahi ere, epidemia guztiz kontrolatzeko helburua nekez lor zitekeen, batez ere 2016rako aurreikusitako aurrekontu-murrizketa kontuan hartuta. “Aurrekontu-murrizketa horiekin, 2030erako epidemia kontrolatzeko helburua utopia da”, adierazi zuen NBE-HIESek herrialdean duen ordezkariak.

LGBTI pertsonekin STIen eta GIBaren inguruko prebentzio, arreta eta kontrolerako neurriak hartu badira ere, ez da neurri berezirik hartu LGBTI pertsonentzako osasun integraleko zerbitzuetan errespetu, berdintasun eta duintasunezko tratatu bat eta kolektibo bakoitzaren premiei erantzuteko arreta espezifiko bat sustatzeko. Halaber, sexu-orientazio eta genero-identitateagatik diskriminazioa ez da debekatu osasun-arreta jasotzeko garaian.

¹¹ Cid Gallup Latinoamérica enpresak 2010ean egindako inkesta batean, herrialdeko 1.200 pertsonari egin zien elkarrizketa, eta, erakutsi zuenez, Guatemalako herritarren % 85ek baztertu egiten zuten sexu bereko pertsonen arteko ezkontza legeztatzea, % 12k baino ez zuten onartzen, eta azken horietako % 59 ez zeuden ados homosexualen edo lesbianen osatutako bikoteek haurrak adoptatzearekin.

LGBTI pertsonen osasunaren sektorean jasaten duten estigma eta diskriminazioa eta osasun-arloko profesionalak giza eskubideetan trebatzeko premia lantzerako bideratutako politikak, programak edo planak garatzeko eskatu zion CIDHeK Osasun Publikoko eta Gizarte Laguntzako Ministerioari, eta 2015eko abenduan sexu-aldaketa egiteko terapia hormonaleko zerbitzuak jasotzen dituen **Trans pertsonentzako osasun integraleko arretarako estrategia** onartu zuen Osasun Ministerioak. Hala ere, trans aktibistek diotenez, oraindik ere erronka handia da estrategia hori eraginkortasunez aplikatzea.

Hezkuntzarako eskubidea

Guatemalako hezkuntza-sisteman, ez dago ildo garbi eta espezifikorik LGBTI gaiak lantzeko, eta LGBTI haur eta nerabeak indarkeriaren biktimak izaten dira maiz ikastetxe publiko zein pribatuen barruan. Ikastetxeetan edozein arrazoirengatik eragindako tratu txar fisiko edo psikologikoen eta diskriminazioaren kasuetan aplikatzen den Indarkeria Kasuen Identifikazio, Arreta eta Erreferentzia Protokolo bat badago ere, ez da aplikatzen sexu-orientazio gay edo lesbikoagatik edo trans identitateagatik eskola-jazarpenaren edo tratu txarren biktimak diren LGBTI haur eta nerabeen kasuan.

Ikastetxe batzuetako araudietan ezartzen da eskolatik kanporatzeko arrazoia dela heteronormatiboa ez den sexu-orientazio edo genero-identitate bat adieraztea, eta hutsegite astuntzat hartzen da “sexu maskulino edo femeninoaren aurkakoak diren, feminismora edo lesbianismora jotzen duten edota gizonezkoaren edo emakumezkoaren endekapena sustatzen duten eta zehaztu gabeko joerak agerian uzten dituzten jarrerak bere gain hartzea”. Hutsegite hori zigortzeko, ikaslea behin betiko kanporatzen da, aurrerago inskribatzeko aukera ukatzen zaio, eta espedientean jokabide horiek delituei lotutako beste batzuekin parekatzen dira.

Hortaz, ikastetxeetan kriminalizatu egiten da askotariko sexu-orientazioa edo genero-identitatea, eta hori Konstituzioaren arauen kontrakoa da erabat, hezkuntzarako eskubidea urratzen du, eta LGBTI pertsonen –eta, bereziki, trans pertsonen– eskolatzeko-maila txikia eragiten du. Gainera, irakasleak ez dira trebatzen LGBTI ikasleak eta/edo GIBarekin bizi direnak behar bezala tratatzeko.

Lanerako eskubidea

LGBTI pertsonen –eta batez ere trans emakumeek– lan-eremuan jasaten dituzte eskubideen urraketarik handienak, lanerako eskubidea ukatzen baitzaie beren itxuragatik. Latinoamerikako eta Karibeko Trans Pertsonen Sareak (REDLACTRANS) Guatemalan duen ordezkariaren arabera, trans emakumeen % 58k ez dute lehen hezkuntza amaitu, eta % 76 lan informalean aritzen dira bizirauteko (sexu-lana barne).

Lan eta Gizarte Aurreikuspeneko Ministerioak (MINTRAB) ez du neurririk hartu langileek beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik diskriminaziorik jasango ez dutela bermatzeko. Gainera, ez dago ildorik MINTRABeko ikuskatzaile eta defendatzaileei LGBTI pertsonak lan bat ukatu zaienean edo arrazoi justifikaturik gabe (baina sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik izan den susmoarekin) kaleratu dituztenean salaketa jartzera bideratzen laguntzeko. Era berean, aurkeztutako salaketa urriek ez zaie eraginkortasunez erantzuten, eta ez da kasuen jarraipena egiten lan-eremuko justizia ezartzea lortu arte.

LGBTI pertsonak “mugimenduan”: barne-desplazamendua, nazioarteko ihesa, deportazioa
“Sin Raíz”¹² diagnostikoak agerian utzi duenez, LGBTI pertsona asko kanporatu egiten dituzte beren familiarik, komunitatetik, hezkuntza-inguruntetik eta erlijio-inguruntetik. Pertsona horiek beren auzo edo kantoietatik urrun bizi behar dutenez eta kalean biziraun behar dutenez gero (krimen antolatua,

¹² “Sin Raíz. Diagnóstico situacional de las personas LGBTI en situación de desplazamiento”. UNHCR eta LAMBDA. 2016.

bahiketak eta lan- eta sexu-esplotaziorako pertsonen trafikoa oso zabalduta dauden herrialde batean), pertsona horien ziurgabetasun- eta kalteberatasun-mailak esponentzialki handitzen dira. Batzuk leku batetik bestera ibiltzen dira etengabe, poliziak edo delitugileen taldeek jazartzen edo mehatxatzen dituztenean, beren landa-komunitateetatik hirietara, eta hirietatik inguruko beste herrialde batzuetara.

UNHCR erakundeak 2012. urtean argitaratutako jarraibide batzuetan argi eta garbi ezarri zuen jazarriko dituzten susmo sendoak dituztela dioten LGBTI pertsonen errefuxiatuaren estatutua eman behar zaiela, baina herrialdean batetik bestera dabiltzan pertsonen laguntzen dietenek ez dute informaziorik LGBTI pertsonen esperientzia eta egoera bereziki buruz, eta, horren ondorioz, pertsona horiek ikusezinak dira nazioarteko babesaren subjektu gisa.

Horregatik, 2016. urtean UNHCR eta LAMBDA erakundeek **gutxieneko estandar batzuk landu zituzten mugitzen diren LGBTI pertsonen laguntzeko**¹³. Estandar horien bidez, LGBTI pertsona horiek gune seguruei, trebakuntzari eta osasun-zerbitzuetara eta justiziara jotzeko aukerei dagokienez dituzten premiak landu zituzten, eta jardunbide egokiak sustatu zituzten Guatemalan mugitzen diren pertsonekin diharduten erakundeek ematen dituzten laguntza-zerbitzuak jasotzeko aukerei dagokienez.

B. 3. INDARKERIA ETA ZIGORGABETASUNA

Hainbat hamarkadatan indarkeria politikoa jasan ondoren, indarkeria naturalizatuta dago Guatemalan, eta are gehiago LGBTI komunitateen aurka. Ohikoak dira irainak, eroskeriak, atxiloketa arbitrarioak eta eraso fisikoak, askotan eraiketa bihurtzen direnak, baina errepresalien beldur salatzen ez direnak. LGBTI pertsonak beldurrez bizi dira, eta ez dute indarkeria-egoerei aurre egiten lagunduko dieten komunitate-babeseko sarerik.

Gobernuak oraindik ere tolerantzia agertzen du indarkeriaren eta gorroto-krimenen aurrean, herrialdeko eta nazioarteko txosten ugari problematika horren inguruan agertutako kezka gorabehera. 2008ko Aldizkako Azterketa Unibertsalak "LGBTI pertsonen aurkako indarkeriari (lintxamenduak barne) aurre egiteko neurriak hartzea" gomendatu zion Guatemalari. Halaber, Torturaren aurkako Batzordeak honako gomendio hau egin zion 2013an: "lesbianak, homosexualak, bisexualak eta transexualak diskriminazioaz eta erasoez babesteko neurriak hartzea, eta indarkeria-kasu guztiak lehenbailehen, eraginkortasunez eta inpartzialtasunez ikertu, epaitu eta zigortuko direla eta biktimen errepresazio egokia izango dutela bermatzea". Bestalde, CIDHeK 2016ko txostenean adierazi zuen "lesbiana, gay, bisexual eta transexualen aurkako indarkeria eta diskriminazioaren egoera larriari buruzko informazioa jaso zuela".

Gorrotoak eragindako eraso eta krimenen aurkako babesik ez izateak LGBTI kolektiboaren aurkako indarkeria ahaztuta geratzen laguntzen du. Trans emakumeen aurkako indarkeria bereziki kezagarria da¹⁴. **Eraildako Trans Pertsonen Behatokiaren** arabera, Guatemala seigarren tokian dago eraildako

¹³ "Estándares mínimos de atención diferenciada para personas LGBTI en movimiento en Guatemala", UNHCR eta LAMBDA. 2016.

¹⁴ Kalkulatutakoaren arabera, ia 5.000 emakume transgenero daude herrialdean. OTRANS erakundeak 685 emakume transgeneroren errolda egin zuen 2015ean herrialdeko 5 departamendutan; lagina herrialdeko udalerrien %85era estrapolatzean, emakume transgeneroen emaitzako guztizko zifra 4.840 izan zen. "Emakume transgenero" diogunean, transexualak eta trabestiak ere barnean hartzen ditugu.

trans pertsonen zifra absoluturik handienak dituzten Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeen sailkapenean; zehazki, 39 kasu ditu erregistratuta¹⁵.

Dena dela, Guatemala bigarren tokian dago milioi bat biztanleko eraildakoen proportzioari dagokionez; zehazki, 2,83 eraildako ditu batez beste milioi bat biztanleko (lehen tokian Honduras dago, 5,12 eraildakorekin)¹⁶. 2017ko urtarrilean, 3 trans emakume erail zituzten ankerkeria handiz. Horren ondorioz, Sandra Morán diputatuak gorroto-krimenen aurkako Mahai bat eratu du erakunde publikoekin eta LGBTI erakundeekin.

Lesbianek, gainera, emakumeak izateagatik ere indarkeriaren biktimak dira. Kasu askotan, terapia zuzentzaileak jasotzen dituzte, gurasoek “zuzendu” eta heterosexual bihurtu nahi baitituzte. “Gizon batekin inoiz harremanik izan ez dutelako direla lesbianak” argudiatuta, “daukaten gaixotasuna zuzentzeko” bortxatzen dituzten gizonekin ezkontzera behartzen dituzte.

“Komunitate indigenak ere LGBTI pertsonen aurkako eremuak dira. Justizia indigenak ez ditu onartzen, eta ukatu egiten zaie lurraren jabetza eskuratzeko aukera. Guatemalan, LGBTI pertsona gehienak beren komunitateetatik kanporatu dituzten LGBTI indigenak dira. Komunitate batzuetan, trans pertsonen aurka diharduen “gizarte-garbiketako” mugimendu bat agertu da. Mugimendu hori delitugile taldeen aurka hasi zen, baina orain LGBTI pertsona ikusezinei (armairuan sartuta daudenei) ere erasotzen die”, dio gay aktibista batek.

Justiziara jotzeko aukera (zaila)

Erakunde Judiziala eta Ministerio Publikoa (PNCK lagunduta) dira lege-aginduz salaketak jasotzen dituzten eta bidezko ikerketa sustatzen duten erakundeak. Salaketa-fitxan salaketa egiten duen pertsonari LGBTI komunitateko kide gisa identifikatzea ahalbidetzen dion laukia txertatu aurretik, sistema informatikoen delitu mota erregistratzen zuten, baina ez zuten zehazten salaketa eragin zuen diskriminazioaren arrazoia. Horregatik, gorroto-delituak ezin ziren identifikatu eta kuantifikatu.

2014. urteaz geroztik, delitu horiek erregistra daitezke, eta iker daitezen eska daiteke. Hala ere, praktikan, LGBTI pertsonak ez dituzte diskriminazioak edo erasoak salatzen Ministerio Publikoan, erakunde horrek beren kasuei arreta jartzen ez diela hautematen baitute. Era berean, ez dute PNCra jotzen, polizia beren eskubideen urratzaile nagusiak direla eta gehien kriminalizatzen eta jazartzen dituztenak direla sentitzen baitute. Horren guztiaren ondorioz, Ministerio Publikoaren Giza Eskubideen Fiskaltzaren Diskriminazio Delituen aurkako Unitateak jakinarazi zuenez, 2016. urtean LGBTI komunitatearen 25 salaketa baino ez ziren erregistratu.

Normalean, LGBTI pertsonak Giza Eskubideen Prokuradoretzara (PDH) jotzen dute salaketa jartzera. Erakunde horrek laguntza ematen die, baina ez du barne-ildorik jarraipena egiteko eta informazioa Ministerio Publikoari helarazteko. Horren ondorioz, PDHan salatzen diren kasuak beti ez dira justizia-sistemara iristen, eta delituak inolako zigorririk gabe geratzen dira. Sexu Aniztasunaren Defendatzailearen arabera, 2016. urtean diskriminazioagatik 14 salaketa jaso ziren Guatemalako udalerrian, eta 2015ean, berriz, 6, baina “horrek ez du esan nahi biktima gehiago ez dagoenik”, adierazi zuen.

¹⁵ Ez dugu trans gizonen aurkako gorroto-krimenen berririk Guatemalan. Aktibistek diotenez, “agian neurri txikiagoan nabarmentzen garelako, etxean geratzeko eta beldurrez hezi gaituztelako eta arriskurik hartzen ez dugulako gertatzen da hori, baina indarkeria psikologikoa eta sinbolikoa jasaten dugu”.

¹⁶ Eraildako Trans Pertsonen Behatokia 2009ko apirilean jarri zen abian, eta Transgender Europe erakundearen eta *Liminalis* izeneko online aldizkari akademikoaren arteko proiektu bateratua izan zen. 2010. urteaz geroztik, datuak argitaratzen dituzte urtean bitan edo hirutan. <http://transrespect.org/es/research/trans-murder-monitoring/>

Laburbilduz, delitu horiek behar bezala erregistratu gabe jarraitzen dute, eta orain arte ez da epairik eman. Gainera, aktibistek diotenez, “adituek eta fiskalek ez dituzte ongi ezagutzen gorroto-krimenen ezaugarri zehatzak”. Justizia-sistemak ez du protokolorik gorroto-delituen biktimei laguntzeko, eta salatu nahi dutenek justizia-operadoreen biktimak ere badirela sentitzen dute.

Bistakoa da ezerezean geratu direla 2008ko Aldizkako Azterketa Unibertsalak Guatemalako Estatuari egindako gomendioa (“gorrotoak eragindako krimenen eta erasoen zigorgabetasunari aurre egitea”) eta 2012ko Aldizkako Azterketa Unibertsalak egindakoa (“biktimaren sexu-orientazioak edo genero-identitateak eragindako diskriminazio- edo indarkeria-gertakari oren ikerketa, judizializazioa eta zigorra bermatzea”).

B. 4. LGBTI MUGIMENDUA (IA)

Gaur egun Guatemalako gizarte-mugimenduak osatzen dituzten erakunde gehienak 1996ko Bake Akordio guztiak sinatu ondoren sortu ziren. Era berean, LGBTI erakunderen bat data horren aurretik sortu bazen ere (OASIS, adibidez, 1993an), ia denak 2000. urtearen ondoren eratu ziren, eta gaur egun aktibo daudenetako askok ez dute hamarkada bete. Gehienek hiriburuan dihardute, baina gero eta gehiago dira Quezaltenangon, Retalhuleun, Jalapan, Izabalen eta beste departamendu batzuetako hiriburuetan agertzen ari direnak.

Erakunde askok GIBaren prebentzioan eta arretan dihardute, eta HIESaren aurkako Munduko Funtsaren baliabideak erabiltzen dituzte. Guatemalan, baliabide horien zati bat Holandako HIVOS izeneko GKEak kudeatzen du, eta arriskurik handieneko populazioetan GIBa prebenitzeko jarduerak, ikerketa, etxeko bisitaldiak, mobilizazio komunitarioa eta zerbitzu publikoentzako erreferentzia-lanak egiten dituzten 25 GKEri ematen die.

Erakunde horietako batzuek, gainera, Nazio Batuen agentzien, USAID agentziaren, Europar Batasunaren eta Europako beste agenzia batzuen finantzaketa jaso dute, eta sendotze instituzional handia lortu dute (kasurik esanguratsuenak LAMBDA eta OTRANS erakundeak dira). Erakunde horien egoera eta gainerakoena, ordea, oso bestelakoak dira. Gainerako erakundeak talde txikiak dira eta LGBTI pertsonen giza eskubideen inguruko agendak lantzen dituzte egoitza propiorik gabe, intzidentzia-lana egiteko baliabiderik gabe eta sendotu eta teknifikatu beharreko antolamendu-egitura batekin. Erakunde horiek diotenez, “dirua maila tekniko handiko baina oinarri komunitariorik gabeko erakunde handietan geratzen da”, eta “beste batzuen proiektuen onuradun izan ordez, beren proiektuen subjektu” izan nahi dute, eta, horretarako, teknikoki trebatu eta antolamendu-mailan sendotu behar dute, eta, batez ere, “oso politak diren baina LGBTI komunitateak ezagutzen ez dituen eta erakundeek aplikatzen ez dituzten gidaliburuak egin ordez, komunitatea sendotu behar dute”.

Bestalde, aktibista gay eta trans indigenek diote LGBTI erakundeek arrazialitate mestizoa dutela, OTRANS erakundearen arabera “Guatemalako Hirian bizi diren LGBTI pertsonen %95 beren komunitate indigenetatik iritsitakoak badira ere”.

Bi sare azpimarratu behar dira: 2006an sortutako Sexu Aniztasunaren eta GIBaren Sare Nazionala (REDNADS) eta sortu berri den LGBTI Erakundearen Federazioa (FOLGBTIG). Bi sare horiek antolatutako gay gehienak biltzen dituzte. Hala ere, bi sare horien arteko lotura oso txikia da, eta taldeek sare batekin edo bestearekin koordinatzen dituzte beren prestakuntza, intzidentzia edo mobilizazioko jarduerak. Harreman bakarrak ekainaren 28ko martxen ingurukoak dira.

Trans emakumeak, bestalde, herrialdeko hainbat departamendutako talde batzuk koordinatzen dituzten bi saretan daude bilduta: OTRANS eta REDMMUTRANS. Adierazitako lehen sareak Erdialdeko Amerikako beste herrialde batzuetako trans emakume asko biltzen ditu (migratutakoak, erbesteratuak edo iragaitzakoak; bazkideen herenak dira). Bigarrenak, berriz, 4 etniako (maiak, garifunak, xinkak eta mestizoak) trans emakumeen taldeekin dihardu herrialdeko 7 departamendutan, kultura anitzeko, kultura arteko eta deszentralizatutako ikuspegi batetik.

Gizon gayek zuzentzen dituzten LGBTI sareak ez bezala, trans emakumeen eta trans gizonen erakundeak intzidentzia-lanerako koordinatu dira, eta aurrerapen handiak lortu dituzte elkarrekin. Adibidez, Osasun Ministerioak trans pertsonentzako osasun integraleko arretarako Estrategia onartu zuen, Ministerio Publikoak salaketa-fitxa aldatu eta LGBTI laukia txertatu zuen, eta Pertsonen Erregistro Nazionalak (RENAP) nortasun-agirietan emakume gisa dagokien izena eta argazkia jartzeko aukera eman zien.

Herrialdean, trans gizonen talde bakarra dago (TRANS-Formación), eta LAMBDA erakundearen babesarekin sortu da. Bertako aktibistek diotenez, ez dago transexualitate maskulinoari buruzko informaziorik (ezta LGBTI komunitatearen barruan ere), feministek eta lesbianek baztertu egiten dituzte (“maskulinitate berri” bat eraiki nahi badute ere), alde handiak daude trans gizonen eta trans emakumeen artean (maila akademiko handia eta familiaren gehiegizko babesa lehenen kasuan, eta jatorri atzerritarra, etxetik kanporatu izana eta sexu-lana bigarrenen kasuan), eta trans emakumeen taldeek onartzen ez dituztela sentitzen dute.

Talde lesbikoen egoerak berezitasun batzuk ditu. Talde horien goren aldia 2008tik 2011ra bitarte gertatu zen, 2008an Guatemalan egindako Latinoamerikako eta Karibeko VIII. Topaketa Lesbiko Feminista elkarrekin antolatu ondoren¹⁷, baina hamarkada honetan taldeak “desagertu” egin dira, neurri batean elkarren arteko tirabirengatik. Dena dela, oraindik badirau IMAGINA aldizkari lesbofeministak. Dauden talde gehienek, beren antolamendu eta aktibismoaren arrazoiei buruzko gogoeta egin ondoren, Abya Yala izenekoaren araberrako sanazioan oinarritutako proposamen politiko bat lantzea eta intzidentzia politiko gehiago ez egitea erabaki zuten, “alderdiek eta Estatuak kooptatu eta erabili egiten baikaituzte”.

Bestalde, Nikaraguan eta El Salvadorren gertatzen den bezala, talde horietako gehienak oso urrun daude LGBTI eta trans erakundeetatik, eta lotura handiagoa dute talde feministekin. Trans emakume batek dioenez: “lesbianak neurri handiagoan dira feministak LGBTI pertsonak baino”. Eta aktibista lesbiana batek onartzen duenez: “Ni ez naiz LGBTI mugimenduaren parte, halakorik baldin badago... lesbiana feministatzat hartzen dut nire burua, kanpotik”. Bestalde, azken bi urteetan, poliziaren errepresioaren, gizartearen arbuioaren eta gorroto-krimenen ondorioz, beren barnera bildu dira eta ez dute jarduera publikorik egiten.

Etsaitasunezko eta mehatxuzko giroa gorabehera (azken urteotan eliza ebanjelikoen, eliteen eta hiri-eremuko erdi-mailako klase ladinoen gorroto-diskurtsoak areagotu duena), LGBTI aktibismoak askotariko jardun publikoak egiten ditu oraindik. Jardun horien artean, honako hauek aipa daitezke: LAMBDA erakundeak 3 departamendutan bultzatutako “Herritarrekin adiskidetsuak diren udalerrriak” (“Municipios amigables con la población”) izeneko intzidentzia-proiektua, REDNADS eta REDMMUTRANS sareek egindako kontzientziazio- eta gizareratze-kanpainak, trans emakumeen hauteskunde-behaketa eta boto-sustapena, kaleko arte-jarduerak eta grafitiak, gay eta lesbianen “ezkontza” kolektiboak, eta herrialdeko 3 hiritan 50 film nazional eta nazioarteko baino gehiago proiektatzen dituen Sexu Aniztasunaren aldeko Zinemaldiaren 4 edizioak.

¹⁷ Latinoamerikako eta Karibeko Topaketa Lesbiko Feministen historiari buruzko bideoa, honako honetan: <http://elflaguate.blogspot.com/>

Komunitatea gehien ikusarazten duten ekintzetako bat ekainaren 28ko Sexu Aniztasunaren aldeko Martxa da. 10 urte baino gehiago dira egiten hasi zela, eta antolatutako zein antolatu gabeko LGBTI pertsonen parte hartzen dute, beren familiekin eta mugimenduko aliatuekin (2016. urtekoan, 20.000 lagunek hartu zuten parte). 2017ko abuztuan, LGBTI Giza Eskubideen VII. Biltzar Nazionala egingo da herrialdean, eta azaroan, berriz, Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersexualen Nazioarteko Elkartearen (ILGA) Munduko Biltzarra.

Edonola ere, LGBTI erakundeek lortutako aurrerapenak ez dira oso agerikoak Guatemalako herritarrentzat. Gainera, erakunde horien eskariak ez dira beste gizarte-mugimendu batzuen agendetan txertatu (emakumeen mugimenduaren edo giza eskubideen defendatzaileen mugimenduaren agendan, adibidez). LGBTI pertsonak duela gutxi hasi dira defendatzaileen koordinazio guneetan parte hartzen, eta oraindik ezin izan dute lortu "agenda politiko partekatu bat lantzeko behar adinako hurbiltasunik". Adierazgarria da, ildo horretan, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Unitateak (UDEFEQUA) LGBTI pertsonen aurkako gorroto-krimenak eta erasoak ez erregistratzea, "giza eskubideak defendatzeko lanarekin zuzenean lotuta daudenean izan ezik", erakundeko zuzendari batek adierazi duenez.

B. 5. LGBTI KOMUNITATEAREN ERREIBINDIKAZIO-AGENDA

LGBTI agenda komuna

- Zigor Kodearen 202 bis artikulua erreformatzea, sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik diskriminatzeko debekua txerta dadin.
- LGBTI komunitatearen eskubideak bermatuko dituen lotura zibilei buruzko lege bat onartzea (lantzeko prozesua abian dago).
- Diskriminazioaren eta gorroto-krimenen aurkako lege bat onartzea (lantzeko prozesua abian dago).
- Politika publiko espezifikoaren bidez, LGBTI komunitateak osasuna, hezkuntza, lana eta justizia lortzeko dituen eskubideak bermatzea:
 - Osasun Ministerioaren STG/GIB/HIES programarako aurrekontua handiagotzea eta Estatuak antirretroviralak emateko duen betebeharra betetzea.
 - Gobernuaren erabaki bidez, ikastetxeen barruan LGBTI haur eta nerabeen aurkako diskriminazio- eta indarkeria-ekintza guztiak debekatzea.
 - Lan Ministerioaren barruan, LGBTI pertsonen lan-eskubideak defendatuko dituen, eskubide horietan orientatuko duen eta sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik diskriminaziorik izango ez dela bermatuko duen arlo bat sortzea. Ministerioan salatutako kasuen judizializazioa sustatzea, Zigor Kodean langile guztientzat ezarritako prestazioak eta lan-onurak betetzen direla bermatzeko.
 - Justizia-operadoreek LGBTI pertsonen salaketak haien giza eskubideak eta konfidentzialtasuna erabat errespetatuz jasotzen dituztela egiaztatzeko neurriak ezartzea. Ikerketa kriminalaren protokoloen barruan, biktimak izan diren LGBTI pertsonen kasuak ikertzeko beharrezkoak diren ildoak ezartzea. Polizia Erreformaren Komisionatuak LGBTI

pertsonen eskubideen errespetu eta erabileraren gaia bere gain har dezan eta erreformatzen ari den PNCren ikasketa-curriculumean txerta dadin sustatzea.

- Guatemalak "Biztanleriari eta Garapenari buruzko Montevideoko Adostasunaren" aurka aurkeztutako erreserba kentzea honako puntu honi dagokionez: *"Genero kontzeptua genero femenino eta genero maskulino gisa baino ez du interpretatzen emakumeak eta gizonak aipatzean, eta ez ditu interpretatzen 'sexu-aniztasunaren taldeak', 'sexu-orientazioa' eta 'sexu-aniztasuna eta genero-identitatea' terminoak"*; eta LGBTI pertsonen eskubideen babes eta erabileraren alde egitea.

Agenda lesbiko espezifiko

- Emakume lesbianen aurkako indarkeria eta erasoak geldiaraztea.

- Amatasunaren eremuan dituzten premia espezifikoak erantzutea (guraso-ahalik gabe ez geratzeko eskubidearekin hasi eta bikotekidearekin seme-alabak izateko prozedura mediko egokiak lortzeko aukerarekin amaitzeraino).

Trans agenda espezifiko

- Genero-identitateari buruzko lege bat onar dadin lortzea (badago zirriborro bat, OTRANS erakundeak landua).

- Trans pertsonentzako osasun integraleko arretarako Estrategia aplikatzea, hormona-tratamenduen jarraipenari dagokionez bereziki.

- GIBaren Legea aplikatzea, GIBarekin bizi diren trans emakumeek antirretobiralak lortzeko aukerari dagokionez.

- Ikastetxe publiko eta pribatu guztietako barne-araudiak berrikustea, xedapenetan trans pertsonak diskriminatzen ez dituztela eta genero-adierazpena aldatzera behartzen ez dituztela egiaztatzeko.

- Estatuak herrialdearen barruan desplazatu diren, migratu duten edo Iparralderantz iragaitzaz dauden trans emakumeei bereziki zuzendutako aterpeak eraikitzea, haien osotasun fisiko, emozional eta sexuala bermatzeko.

B. 6. NAZIOARTEKO LAGUNTZA JASOTZEKO PROPOSAMENAK

Elkarrizketatutako pertsonen identifikatutako premiak

- LGBTI erakundeen **sendotzea** babestea (eta, bereziki, kolektibo osoaren giza eskubideei lotutako lana ardatz duten tokiko "oinarrizko talde" txikiak). Horretarako, honako hauek behar dira:

- lokal propioa eta gune seguruak edukitzeko baliabide ekonomikoak;
- taldeak epe ertain eta luzera egonkor egiteko baliabideak;
- giza eskubideei, salaketa-estrategiei eta auzi estrategikoari buruzko prestakuntza;
- autolaguntza-taldeak egiteko babesak, traumatizatuta dauden LGBTI pertsonak sendatzeko.
- LGBTI komunitateak bere eskubideak ezagutu eta eskatzeko, eskubide horien urraketa salatzeko eta Estatuari babes-mekanismo egokiak eskatzeko informazio-kanpainak egiten jarraitzeko baliabideak.

LGBTI Erakundeen Federazioa nortasun juridikorik eta baliabiderik gabeko oinarrizko taldeez osatuta dagoenez gero, babes ekonomikoa behar du talde guztiek erabiltzen duten zentro komunitarioak abian jarraitzeko, komunitatearen aldeko jarduerak egiteko eta boluntarioen egitura suspertzeko.

- **“Berdinen arteko”** ikaskuntza-jarduerak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko LGBTI kolektiboekiko elkartrukeak, kultura-erresistentzia (indigena) eta LGBTI erresistentzia nola antolatu behar diren ikasteko;
- intzidentzia politikoko EAEko eta Espainiako esperientziak eta legegintza-aldaketak lortzeko estrategiak;
- LGBTI haurren aurkako diskriminazioari eta eskola-bullingari aurre egiteko ekintzetarako aholkularitza.

- Euskal Autonomia Erkidegoko LGBTI komunitatearen **elkartasun politikoa** Guatemalako komunitatearekin, honako hauen bidez:

- Guatemalan egiten diren gorroto-krimenen salaketa;
- bi komunitateen arteko komunikazioa, Ameriketako Estatu Batuetatik deportatu eta beren herrialdeetara itzuli ezin izan ondoren Euskal Autonomia Erkidegora emigratu duten Erdialdeko Amerikako trans emakumeen egoeraren jarraipena egiteko.
- arriskuan dauden Guatemalako LGBTI defendatzaileentzako larrialdi-funts baten sorkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan.

- **Sexu Aniztasunaren Giza Eskubideen Behatokia** mantentzeko baliabideak, datu-iturri bakarra baita herrialdean (Sexu Aniztasunaren Defentsa Erakundeak ez du txostenik egiten).

HONDURAS



Hiriburua: Tegucigalpa

Gobernu mota: Errepublikak presidentzialista

Biztanleria: 8.866.351 biztanle (2016)

Homosexualitatearen legezkotasuna:

15 urtetik gorako sexu bereko pertsonen arteko sexu-jarduera baimendua eta pribatua legekoa da Hondurasen 1899. urteaz geroztik.

C. LGBTI KOMUNITATEAREN EGOERA HONDURASEN

“Hondurasen neurritz kanpoko diskriminazioa dago gay, bisexual, lesbiana eta transexualen aurka. Horregatik, gure eskari sistematiko eta iraunkorra giza eskubideak errespetatzea da, eta, nagusiki, bizitzeko eskubidea”. (Aldizkako Azterketa Unibertsalerako (AAU) txosten alternatiboa¹⁸. Hondurasko Sexu Aniztasunaren Batzordea. 2014ko iraila)

C. 1. INGURUNE GAIZTOA LGBTI KOLEKTIBOARENTZAT

Hondurasko Konstituzioak giza duintasunaren bortxaezintasuna jasotzen du, herritartasuna bete-betean baliatzeko oinarrizko bermeak ezartzen ditu, eta bizitzeko eta norberaren segurtasunerako eskubidea, askatasuna eta berdintasuna legearen aurrean, eta lan-iturriak, osasun-zerbitzuak eta kalitateko hezkuntza berdintasunez eta egokitasunez lortzeko aukera zaintzen ditu.

Hala eta guztiz ere, Konstituzioaren agindu horiek ez dira gauzatu LGBTI kolektiboan. 2012. urtera arte, Hondurasek ez du izan diskriminazioaren aurkako arau-esparrurik, eta gaur egun dagoena (Zigor Kodearen 321. artikuluan oinarritua) ez da aplikatzen LGBTI pertsonak beren giza eskubideen urraketa ugari eta larriez babesteko. Gaur egun, Estatuak sistematikoki urratzen ditu bizitzeko, osasunerako eta hezkuntzarako, justiziara jotzeko, genero-identitaterako, berdintasunezko ezkontzarako, familia bat izateko eta segurtasunerako eskubideak (Hondurasko LGBTI kolektiboari urratutako beste zenbait giza eskubideren artean).

2001. urtean onartutako **Poliziari eta Gizarte Bizikidetzari buruzko Legea** LGBTI komunitatearen aurkako lehen mailako errepresio-tresna bat da. 101., 131. eta 142. artikuluen arabera, poliziak 24 ordura bitarte eduki dezake pertsona bat espetxeratuta “moduzkotasanari, moralari eta ohitura onei erasotzeagatik, iskanbilak sortzeagatik, molestatzeagatik edo moralaren aurkako jokabidearen bidez auzokoen lasaitasuna asaldatzeagatik”, eta aplikazioari dagokionez interpretazio subjektiboa ahalbidetzen duten beste adierazpen batzuk biltzen ditu. Lege horren aplikazioak atxilotuak arbitrario asko eta asko eragin ditu, eta atxilotuek poliziaren indarkeriazko abusuak jasateko arrisku handia izaten dute atxilotuak horietan. CIDHeK adierazi duenez, lege horrek, praktikan, giza eskubideen urraketak ekarri ditu, batez ere trans pertsonen kasuan (sexu-lanean aritzen direnen zein bestelako kasuan)¹⁹.

2004. urtean, Kongresu Nazionalak **Konstituzioaren 112. eta 116. artikulua** erreformatu zituen, neurri handian urratu zen LGBTI pertsonen beren familia-unitateen aitortzerako duten eskubidea. Erreforma horren bidez ezarrita geratu zenez, “naturalki gizon-izaera eta emakume-izaera duten bi pertsonak baino ez dute elkarren artean ezkontzeko eskubidea”, eta debekatuta daude sexu bereko pertsonen arteko ezkontza eta izateko lotura, baita sexu bereko pertsonen osatutako bikoteei haurrak adopzioan ematea ere.

¹⁸ Aldizkako Azterketa Unibertsala (AAU) Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak estatu kideetan giza eskubideen egoera hobetzeko daukan mekanismo berria eta bakarra da.

¹⁹ CIDH, 2013ko Urteko Txostena, IV. Kapitulua: Honduras, 427. paragrafoa.

Beraz, ez da harritzekoa 2008ko ekainean, Hondurasek Amerikako Estatuaren Erakundearen (AEE) Batzar Nagusiak aho batez onartutako “Giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari” buruzko ebazpena babestu zuenean eta, ildo horretan, pertsonen aurka sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik egiten diren indarkeria-ekintzekiko kezka adierazi zuenean eta publikoki haiei aurre egiteko konpromisoa hartu zuenean, promes horiek LGBTI komunitatearentzat batere sinesgarriak ez izatea.

Handik urtebetera, Mel Zelayaren aurkako estatu-kolpeak are gehiago itxi zituen LGBTI komunitatearen eta, oro har, Hondurasko herriaren giza eskubideak erabiltzeko aukerak.

2009. urtetik aurrera, giza eskubideen egoerak okerrera egin du, eta zigorgabetasunak eta indarkeriak zuzentzen, kontrolatzen eta mehatxatzen du Hondurasko gizartea. Hamarkada honen ezaugarri bereizgarriak honako hauek dira, besteak beste: herrialdearen gero eta militarizazio handiagoa, gizarte zibilak parte hartzeko guneen murrizketa, Estatuko erakundeen efikaziarik eta eraginkortasunik eza, giza eskubideak murrizten dituzten lege eta dekretuen ezarpena, justizia- eta segurtasun-erakundeen kontrola botere-taldeen aldetik, historikoki kalteberenak izan diren herritar-sektoreen babesgabetasun handiagoa, kriminalitatearen eta segurtasunik ezaren maila handiagoak, giza eskubideen defendatzaileen borroken jazarpena, judizializazioa eta kriminalizazioa eta muturreko pobrezia.

Eskubideen aldeko lege, erakunde eta politika publikoen arloan egindako aurrerapenak antolatutako gizarte zibilaren borrokei eta nazioarteko presioari esker lortu dira.

2012. urtean, LGBTI erakundeen borrokari esker, **Zigor Kodearen 27. eta 321. artikulua** erreformatu ziren, eta ezarrita geratu zen “delituaren inguruabar astungarria dela sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik gorrotoz edo arbuioz egitea” eta 3-5 urteko espetxe-zigorra ezarriko zaiola “eskubide indibidual eta kolektiboen erabilera oztopatu, murriztu, txikiagotu, eragotzi eta baliogabetzen dituenari edota sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik zerbitzu-profesionalak ukatzen dituenari”. Hala ere, LGBTI erakunde guztiek diote artikulua horiek ez direla aplikatzen ari.

2010ean egindako Lehen Aldizkako Azterketa Unibertsalaren gomendioak betetzeko²⁰, gobernuak **Gizarte Babeseko Politika** onartu zuen 2012an, eta **Giza Eskubideen arloko Lehen Politika eta Ekintza Plan Nazionala** 2013an. Bi politika horietan, honela identifikatzen dira LGBTI pertsonak: “populazio kaltebera, Estatuaren arreta eraginkorra behar duena, hain zuzen ere eskubideen subjektutzat hartuko dituzten eta osasuna, hezkuntza eta enplegu duina lortzeko ekintzak ezarriko dituzten programen bidez”. 2013. urtean, halaber, gobernuak Justizia eta Giza Eskubideen Idazkaritza sortu zuen. Erakunde horretan, herrialdeko funtsezko eragile guztiak bildu zituen (LGBTI pertsonak barne), hitz egiteko eta **Giza Eskubideen Politika Nazionala** sortzeko.

Bestalde, 2015. urtean, Hondurasi **bigarren AAUa** egin zioten. Azterketa horretan, 152 gomendio egin ziren, eta horietako 13 LGBTI pertsonen giza eskubideetan egin beharreko aurrerapenari lotuta zeuden. Adierazi beharra dago gobernuak ez zuela onartu Pertsonen Erregistro Nazionalan norberak hautemandako genero-identitatea legez aitortzea ahalbidetuko zuen genero-identitateari buruzko lege bat onartzeko gomendioa, APUVIMEH elkartearen txostenen arabera erregistratutako gorroto-krimenen biktimen herenak baino gehiago trans pertsonak badira ere.

Halaber, AAUaren gomendioak betetz, 2015ean **giza eskubideen defendatzaileak**, kazetariak, gizarte-komunikatzaileak eta justizia-operadoreak **babesteko Legea** onartu zen. Lege horrek babes-

²⁰ Giza Eskubideen Kontseiluak azterketa horren ondoren gobernuari egindako 128 gomendioetatik, 8 LGBTI pertsonen giza eskubideei lotuta zeuden.

mekanismo bat (sektore horietako bat arriskuan dagoenean berehala abian jarri behar dena) eta Babes Kontseilu Nazionala (LGBTI aktibisten parte-hartzea duena) ezarri ditu. 2016ko abuztuan legearen erregelamendua oraindik argitaratu gabe bazegoen ere, mekanismoa zenbait aldiz jarri zen abian urte horretan, eta babes eskatu zuten 38 pertsonetatik 25 babestu ziren (gehienak giza eskubideen defendatzaileak ziren).

2015. urtean bertan, Konstituzioan aitortutako eskubide eta askatasunak bermatzeko hogeitau urte lehenago sortutako **Giza Eskubideen Komisionatu Nazionalak (CONADEH)** jakinarazi zuen **Sexu Aniztasunaren Defentsa Erakundea** sortu zela eta erakunde horrek sexu-aniztasunari lotutako giza eskubideen inguruko trebakuntza eman zuela 224 pertsonari (osasun-arloko langile publikoei eta poliziaei). Erakunde horren sinesgarritasun urriaren erakusgarri, urte horretan LGBTI pertsonak edo taldeek giza eskubideen urraketatik jarritako 73 keza baino ez dira bideratu. Komisionatuak berak onartzen zuenez, “indarkeriazko heriotza eta bestelako eraso fisiko, moral, hitzezko eta sexual ugarien aurrean, LGBTI taldeak adierazi du erantzun gutxi jasotzen dituela Estatuaren erakundeetatik”.

Erakunde berri horiek gorabehera, egungo gobernuak gizarte zibilaren kritika gogorak jaso ditu. Gogorrenak herritarren segurtasunaren arloko atzerapenei eta giza eskubideak sustatu eta defendatzeko erakundeen ahultze nabarmenari lotutakoak dira. Estatu-kolpea egin zenetik 8 urte joan direnean eta itxuraz normaltasuna itzuli denean, aktibisten, haien familien eta haien komunitateen arrisku-iturri nagusiak zigorgabetasun-maila handia, gizarte-aktibismoaren kriminalizazioa eta indar armatuen erabilera (segurtasunik ezari erantzuteko trena gisa) dira oraindik ere. Arrisku larri horien aurrean, Estatuak bere babes-mekanismoen bidez eman duen erantzuna desegokia eta askieza izan da.

C. 2. GORROTO-KRIMENEN ERDIALDEKO AMERIKAKO SAILKAPEN NAGUSIAN

2016. urtean, Erdialdeko Amerikan LGBTI pertsonen aurka egin ziren krimenen % 50 Hondurasen gertatu zirela jakinarazi zen²¹. LGBTI erakundeen datuen arabera, 2009. urtetik gaur arte Hondurasen, Guatemalan eta El Salvadorren eraildako 282 homosexualen % 60 Honduraskoak ziren, % 25 Guatemalakoak eta % 15 El Salvadorkoak.

Hondurasko gizartean, fundamentalismo erlijiosoaren eragina izugarria da, elizak (katolikoa eta ebanjelikoak) Estatuko egituretan txertatuta daude, eta LGBTI pertsonen aurkako diskriminazioaren kultura areagotzen duen diskurtso bat zabaltzen dute. Horregatik, pertsona horiek oso kalteberak dira gehiegitan erailketak izaten diren erasoen aurrean.

LGBTI pertsonak homizidioen, homizidio-saiakuntzen, agintekerien, lesioen, legez kanpoko atxiloketen, lapurreten, jazarpenen, sexu-bortxaketan, heriotza-zigorren, familia barruko indarkeriaren eta eraso biktimak izan dira, eta partikularrengandik zein Estatuko segurtasun-kidegoetako agenteengandik jasan dituzte²². Indarkeria eta diskriminazioa jasateko arriskurik handiena dutenak trans emakumeak dira (sexu-lanean aritzen direlako), baina eraildako gizon gayen proportzioa handiagoa da.

²¹ CIDHaren 157. bilkuraldiko audientzia publikoa, “Hondurasko LGBT pertsonen giza eskubideen egoerari” buruzkoa, 2016ko apirila. <https://youtu.be/WRZD9fxpvos>

²² Aktibistek diotenez, LGBTI pertsonen aurkako gorroto-krimenetan, homo-lesbo-transfobiak eta Estatuko segurtasun-kidegoen jardunek eragindakoak ez ezik, beste hainbat indarkeria motak ere parte hartzen dute (krimen antolatutak, marek, droga-trafikoko sareek eta abar).

LGBTI pertsonen aurkako krimenen kopuru handia ez da kontu berria Hondurasen. 2001. urtean, judizioz kanpoko exekuzioei, exekuzio sumarioei edo arbitrarioei buruzko errelatore bereziak herrialdera bisitaldia egin ondoren jakinarazi zuenez, 1991tik urte horretara bitarte gertatutako 200 LGBTI pertsona eta sexu-langile baino gehiagoren erailketei buruzko informazioa jaso zuen. Kasu horietako oso gutxi erregistratu ziren ofizialki, eta are gutxiago izan ziren ikertutakoak. Txosten horrek ez zuen Hondurasko agintarien erantzunik jaso. 2005. urtean, emakumearen aurkako indarkeriari buruzko errelatore bereziak gogor jo zituzten 7 trans emakumeren berri izan zuela eta haietako batzuk poliziekin sexu-harremanak izatera behartu zituztela jakinarazi zien Hondurasko agintariei. Errelatoreak, halaber, gobernuaren erantzuna eskatu zuen, baina ez zuen jaso.

Hondurasen, indarkeria homofobia eta transfobia maila beldurgarrietara iritsi da azken urteotan. Estatu-kolpearen aurretik, LGTB pertsonen bi erailketa gertatzen ziren batez beste urtean. Ondoren, berriz, zifra 31 aldiz handiagoa izatera iritsi da. Homizidioez gain, torturak, bortxaketak eta desagerpenak etengabeak dira herrialdean. Aktibistek diotenez, indarkeria horren arrazoia Hondurasek 2010. urteaz geroztik bizi duen militarizazioa da. Urte horretan, Porfirio Loboren gobernuak LGBTI erakundeen aurkako jazarpen-kanpaina bat hasi zuen, kolpearekin kritikoak zirelako eta ordena publikoa mehatxatzen zutelako.

CATRACHAS Sare Lesbikoaren **LGBTI Pertsonen Indarkeriazko Heriotzen Behatokiak** 1994tik orain arteko datuak biltzen ditu (<http://www.cattrachas.org/>). Herrialdeko erregistrorik fidagarriena da. Erregistroaren iturriak komunikabideak dira, eta datuak kolektibo horrek justizia-sistemari egiten dion auditoria sozialaren oinarria dira. Heriotza bakoitza ikertzeko bideratzen da, kasuak justizia-operadoreekin erkatzen dira, eta Estatuaren erantzuna erregistratzen da. Horren arabera, 2016. urtearen hasieratik 2017ko otsailera bitarte 29 gorroto-krimenen berri eman zuen Behatokiak (16 gay, 8 trans eta 5 lesbianaren aurka). Eta 1994tik 2017ko otsailera arte, berriz, 269 erailketa erregistratu ziren guztira (153 gay, 93 trans eta 23 lesbianaren aurka).

Hondurasko erailketa gehienak marek edo gaizkile taldeek egiten badituzte ere, LGBTI pertsonen kasuan Estatuko erakundeak berak dira gorroto-mezuak zabaldu eta pertsona horien jazarpena sustatzen dutenak. Komunikabideek droga-trafikoarekin eta krimen antolatuekin lotzen dituzte giza eskubideen aldeko elkarteak, eta, era horretan, sexu-gutxiengoaren aurkako etsaitasun-giroa bultzatzen dute. Funtsezkoa da, halaber, eliza katolikoak eta talde ebanjelikoek LGBTI pertsonen aurkako gorrotoaren bultzatzaile gisa betetzen duten zeregina. “Estatua, eliza eta komunikabideak dira *Hondurasen zigorgabetasuna, fundamentalismoa, matxismoa eta misoginia* zabaldu izanaren erantzule nagusiak”, Donny Reyes aktibistak dioenez. Aktibista hori Arcoiris elkarteko koordinatzailea da, eta atzerrian errefuxiatu behar izan zuen hamar hilabetean, erasoen eta heriotza-zigorren ondorioz.

2016. urtean, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak Unidad Color Rosa kolektiboko kide Pamela Martínez trans emakumearen, Asociación Feminista Trans elkarteko aktibista Alejandra Padillaren eta Comunidad Gay Sampedrana komunitateko presidente René Martínezen erailketak gaitzetsi zituen, eta LGBTI komunitatearen defendatzaile eta aktibisten erailketak ikertzeko, krimen horien erantzuleak harrapatzeko eta LGBTI pertsonen aurkako indarkeriaz babesteko mekanismoak ezartzeko eskatu zion Honduras.

2015etik 2017ra bitarte, aktibista ezagunak erail dituzte, hala nola Sherlyn Montoya eta Angy Ferreira (Muñecas de Arcoiris trans emakumeen elkartekoak), Paola Barraza eta Henry Matamoros (Arcoiris elkartekoak), Juan Carlos Cruz Andara (gay aktibista eta telebistako erreportaria), Gloria Carolina Hernández poeta eta Jorge Alberto Castillo (APUVIMEH elkartearen laguntzaileak), eta Violeta Rivas, Estefanía Zúñiga eta Josselin Janet Aceituno (LGBTI pertsonen eskubideen defendatzaileak).

CIDHeK kautelazko babes-neurriak eman dizkie Arcoiris elkarteari, Sexualitatearen eta Hiesaren arloko Prebentzio Zentroari (CEPRES), Comunidad Gay Sampedrana para la Salud Integral komunitateari, Asociación para una Vida Mejor (APUVIMEH) elkarteari, SOMOS zentroari eta CATRACHAS sare lesbikoari. Hala ere, erakunde horietako aktibistek adierazi dute neurrien aplikazioak hutsune larriak dituela: poliziaren patruilatzeak ez dira sistematikoak, telefono-loturek ez dute funtzionatzen, polizien kopurua ez da egokia, ez dago neurriak ezartzeko protokolorik eta abar.

Nazio Batuek salatu dutenez, sexu-orientazioa komunitateak jasaten duen jazarpenaren arrazoi nagusietako bat da, eta, horregatik, LGBTI aktibistek herrialdearen barnean desplazatu behar dute edota herrialdetik ihes egin behar dute, nazioarteko babesa lortzeko. Hainbeste dira jasandako mehatxuengatik eta segurtasunik ezagatik herrialdea utzi behar izan duten LGBTI aktibistak²³, San Pedro Sulako kolektibo batzuk gelditu daude gaur egun, liderrik ezagunenak erbesteratu egin direlako edo erail egin dituztelako.

Abusuak, indarkeria, mehatxuak eta homizidioak ohikoak diren giro horretan, Hondurasko gobernuak nazioarteko foroetan arazo horri garrantzi handirik ematen ez diola dirudi, eta oin-ohar bat jarri du Amerikako Estaturen Erakundeak Sexu Orientazioari, Genero Identitateari eta/edo Genero Adierazpenari eta Torturari buruz hartuko duen Ebazpena eragozteko.

Zigorgabetasuna eta justiziara jotzeko aukera (ezinezkoa)

Giza Eskubideen Komisionatu Nazionalak 2012ko txostenean adierazitakoaren arabera, gorroto-krimenen % 92 baino gehiago ez dira behar bezala ikertu, eta argitu gabe jarraitzen dute. Handik hiru urtera, Ministerio Publikoaren Bizitzaren Aurkako Delituen Unitateak (bere erregistroetan LGBTI pertsonen heriotzak biltzen dituenak) jakinarazi zuenez, 2009. urtetik 2014ko abuztuaren 30era bitarte 172 gorroto-krimen erregistratu ziren. Horietatik, 38 judizializazio-prozesuan zeuden artean, eta 9tan baino ez ziren epaiak eman (kasu horietako 8tan, gainera, ustezko erantzuleak absolbitu egin zituzten).

Justizia-sistema ez da eraginkorra diskriminazioagatik, homo-lesbo-transfobiagatik eta gorroto-krimenengatik egindako salaketen ikerketan eta judizializazioan. Eraiketen edo erasoen salaketek bidezko ikerketa-prozesua izateko eta judizializaziora eta epaira iristeko oztopo nagusiak honako hauek dira: justizia-sisteman nagusi den ustelkeria estrukturala, langileen errotazioa eta justizia-operadoreen eta Giza Eskubideen Fiskaltzaren ahalmen teknikorik eta ikerketa-ahalmenik eza.

Nazioarteko erakundeek kezka handia agertu dute Hondurasen nagusi den indarkeria eta zigorgabetasunaren aurrean. 2015. urtean, giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko Nazio Batuen errelatore Michel Forstek honako hau adierazi zuen: "Bada garaia Hondurasko Gobernuak giza eskubideen defendatzaileen gero eta exekuzio kopuru handiagoaren aurrean ikusten den zigorgabetasun nabarmenean esku hartzeko".

Europako Parlamentuak, halaber, "Hondurasko giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko ebazpena" eman zuen 2016ko apirilean. Ebazpen horretan azpimarratzen denez, beharrezkoa da hainbat LGBTI erakundetako aktibisten homizidioei buruzko ikerketa zorrotzak, berehalakoak eta inpartzialak egitea eta komunitateak jasaten dituen diskriminazio eta gorroto-krimenen aurkako babesa sendotzea.

²³ APUVIMEHko zuzendariak adierazi zuenez, elkarteko 100 laguntzailek baino gehiagok jazarpena jasaten dute, eta ia hogeik Ameriketako Estatu Batuetara, El Salvadorrera eta Espainiara erbesteratu behar izan dute "Estatuko agintarien aurrean jarrera irmoa agertzeagatik, beste LGBTI kolektibo batzuk desfileetan dabilzan bitartean". Arcoiris elkarteko koordinatzailearen arabera, egunero 5-7 LGBTI pertsonak emigratzen dute Ameriketako Estatu Batuetara, Espainiara eta Alemaniara (batez ere trans aktibistek), bizitza arriskuan izateagatik.

Atxilotzeko eta erailtzeko baimena duten poliziak

Polizien ustelkeria-maila eta giza eskubideen urraketatik duten inplikazio-maila oso kezagarria da. 2005etik 2009ra bitarte, LGBTI pertsonen aurkako 172 krimen erregistratu ziren, eta krime horien % 45etan, gutxienez, polizia-agintariak zeuden inplikaturik.

Polizien kriminalitate-maila eta poliziek inpaktu sozialeko erailketetan zuten inplikazio-maila gero eta handiagoa zenez gero, gizarteak Polizia Nazionala, Ministerio Publikoa eta Botere Judiziala berriz antolatzeke eta garbitzeko eskatu zuen. Horren ondorioz, ikerketa-ahalmenak zituzten erakunde berriak sortu ziren: Ordena Publikoaren Polizia Militarra (*PMOP*) eta Ministerio Publikoaren Ikerketa Kriminalerako Agentzia Teknikoa (*ATIC*). Hala ere, segurtasunik eza eta zigorgabetasun-maila oso larriak dira oraindik.

Gizarte zibileko erakundeek diotenez, 2001eko Poliziaren eta Gizarte Bizikidetzaren Legea pertsona asko (eta, bereziki, sexu-langileak) atxilotuta-zentro ez-ofizialetan arbitrarioki, kontrol judizialik gabe eta 'koexistentzia sozial' edo 'moral' kontzeptu zehaztugabeen interpretazio guztiz subjektiboak eginez atxilotzeko erabiltzen da oraindik²⁴.

Are gehiago, legeak 100. artikuluan dioenez, "era susmagarrian dabilen" pertsona bat atxilotu egin daiteke identifikatzeko, "gizarte-babesaren" izenean. Hondurasko Estatuak onartu du xedapen horrek, pobrezia kriminalizatzeaz gain, itxura fisikoaren arabera diskriminatzen duela, legez kanpoko atxilotetak bultzatzen dituela eta oinarritzeko giza eskubideak errespetatzen ez dituela²⁵.

C. 3. MUGIMENDU JAZARRIA, BAINA ERRESISTENTZIA HANDIKOA

Joan den mendeko 90eko hamarkadan, GIB/HIESak eragindako larrialdiak (GIB/HIESak eragin handiagoa izan zuen Hondurasen Erdialdeko Amerikako gainerako herrialdeetan baino, eta LGBTI pertsona asko hartu zituen eraginpean) eta Estatuak pandemiari aurre egiteko agertutako ekimen urriak lehen LGBTI erakundeen agerpena bultzatu zuten (Violeta kolektiboa Tegucigalpan eta Comunidad Gay Sampedrana komunitatea San Pedro Sulan). Erakunde horiek GIBaren prebentzioan eta arretan jardun zuten nagusiki.

Ordutik 2009ko krisi politikoa iritsi arte, LGBTI erakundeek lanak osasun-arloa izan zuen ardatz, baina 2008. urtean Cortés departamenduko tokiko gobernuekiko lehen hurbilketa bat egin zuten, LGBTI pertsonen aurkako indarkeria-egoerak lantzeko. Human Rights Watch erakundearen 2009ko txostenak agerian utzi zuen salatzen ez ziren indarkeriak gertatzen ari zirela sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik.

2009. urtetik aurrera, LGBTI erakundeak gizarte-mobilizazioaren protagonistak izaten hasi ziren, emakumeekin, gazteekin eta nekazariekin batera. Beste arrazoi batzuen artean, aipatu beharra dago estatu-kolpeak eragindako krisialdi politikoaren barruan 28 erailketa gertatu zirela 6 hilabetean sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik. "LGBTI komunitatea mobilizatu egin zen, lehen hildakoak jarri zituen, erresistentziaren parte izan zen eta errespetua lortu zuen. Aurpegia emateak onurak dakartza", dio gay aktibista batek.

²⁴ CIDHaren 140. bilkuraldiko audientzia publikoa, "Zigor-neurriak eta sexu-identitateagatik diskriminazioa Karibeko herrialdeetan" gaiari buruzkoa, 2010eko urria. Halaber, CEJIL: "Estudio sobre los Crímenes de Odio Motivados en la Orientación Sexual e Identidad de Género en Costa Rica, Honduras y Nicaragua" (2010).

²⁵ CIDH (AEE) 2015: Violencia contra personas LGBTI (73. or.). www.cidh.org

Gizarte-mobilizazio horiei esker, politikan parte hartzeko modu berriak sortu ziren, aldaketaren eta berrikuntzaren ideietan oinarrituak. LGBTI aktibistek borroka sozial eta politikoak zuzendu zituzten, eta nabarmendu egin ziren herrialdea ohituta ez zegoen modu batean: heteronormatibitate kanpoko sexu-identitateak eta sexu-orientazioak dituzten pertsonen bizitza eta duintasunarekiko errespetua aldarrikatuz, alegia.

Gaur egun, Hondurasko LGBTI mugimenduak ez du gutxieneko agenda komunikatib²⁶, eta kideek lehentasun desberdinak dituzte. Erakunde batzuek parte-hartze politikoan, gorroto-krimenen eta gorroto-erasoen salaketa publikoan eta tokiko talde txikien sendotzean oinarritzen dute lana; beste batzuek, berriz, nahiago dute erakunde publikoekin intzidentzia politikoan jardun, LGBTI pertsonentzako zerbitzuak eta GIBaren inguruko lana hobetzeko.

Bestalde, azpimarratu beharra dago LGBTI erakunde mistorik antzinakoenetan eta hobekien finantzatuta daudenetan gizon gayek duten nagusitasuna eta **talde lesbikoen** autonomiarik eta baliabiderik eza: dauden 5 kolektiboetatik, CATTRACHAS Sare Lesbikoa da nortasun juridikoa duen eta esplizituki feminista den kolektibo independente bakarra. Kolektibo lesbikoei oraindik ez dute lortu sare batean antolatzea, ezta LGBTI erakundeek beren eskari espezifikoak kontuan hartzea ere. Kolektibo horietako batzuk Emakumeen Erdialdeko Amerikako Funtsaren finantzaketa txikien bidez mantentzen dira.

Trans emakumeen kolektiboak kide gutxiarekin geratu dira, eta gehienek oso baliabide urriak dituzte, ez baitute nortasun juridikorik. Kalkulatutakoaren arabera, 2.000-3.000 trans pertsona daude herrialdean, baina dozena batzuk baino ez daude talde independenteetan antolatuta (ez dago trans gizonen talderik herrialdean). Hondurasko Trans Sarea desagertu egin zen aktibista nagusiak erbesteratu zirenean, eta trans taldeen arteko koordinazio urriak GIBaren prebentzioan trebatzeko eta lan egiteko egiten dira.

Zenbait trans emakumek herri-hautapeneko karguak lortu nahi izan dituzte eta hainbat alderdiren zerrendetan sartu dira, baina hauteskunde-txarteletan beren izen maskulinoa agertzen zen. Rihanna Ferrera COZUMEL TRANS elkarteak azaldu duenez, nortasun-agirian argazkia aldatzea lortu zuten bere elkartearen, Pertsonen Erregistro Nazionalaren (RNP) eta CONADEH erakundearen lanari esker: “gure nortasun-agirian agertzen zen argazkia gizon batena zen, baina aldatzea lortu dugu, eta orain trans emakumeek emakumearen argazkia jarri ahal izango dute agirian”, zehaztu zuen. 2016. urteaz geroztik, trans pertsona asko joan dira RNPr nortasun-agiriko argazkia aldatzera, baina Hauteskunde Auzitegi Gorenak (TSE) hauteskundeetan aurkezteko asmoa dutenei jakinarazi die hauteskunde-zerrendetan izen maskulinoarekin agertuko direla.

Beste lorpen batzuen artean, halaber, preso dauden trans emakumeek emakumez jantzeko eta ile luzea eramateko duten eskubidea aitortu dela aipatu beharra dago. Hala ere, aktibista batzuen ustez, “LGBTI erakundeek ez dituzte trans emakumeak ahaldu, eta gizon gayak diren ideiarekin jarraitzen dute”.

C. 4. HAUTESKUNDE-PROZESUETAN PARTE HARTZEAREN GARRANTZIA

LGBTI erakundeek estatu-kolpearen aurrean agertutako erresistentziak eta nazioarteko komunitatearen presioak bultzatuta, 2012. urtean Hondurasko alderdiak beren estatutu eta

²⁶ SOMOS CDC erakundeko zuzendariak diotenez, 2015ean Tegucigalpan egindako Latinoamerikako eta Karibeko LGBTI Lidergo Politikoen Lehen Topaketaren ondoren, agenda komun bat landu zuten Hondurasko LGBTI talde guztiek, baina “paperean geratu zen”.

programetan LGBTI herritarrak onartzen hasi ziren²⁷, eta beren barne-hauteskundeetan lehen LGTBI hautagaiak aurkeztu ahal izan ziren.

Lehen esperientzia Walter Tróchez giza eskubideen defendatzailearena izan zen. Krisi politikoaren esparruan, eta gaya zela argi eta garbi erakutsi ondoren, bozketa-zentroetan gertatutako bidegabekeriak salatu zituen, eta bahitu, torturatu eta erail egin zuten. 2012. urtean, Erick Martínez Ávila kazetari gayak Libertad y Refundación (LIBRE) alderdiaren barne-hauteskundeetan diputatu izateko hautagai gisa aurkeztuko zela jakinarazi zuen, eta handik egun batzuetara torturatu eta erail egin zuten. Hauteskundeetan beren burua aurkeztu zuten beste LGBTI pertsona batzuek (hala nola Erick Martínez Vidalek eta Claudia Spellmanek) herrialdetik ihes egin behar izan zuten 2014. urtean, heriotza-mehatxuen ondorioz. Geroago, 2016. urtean, Gay Sampedrana elkarteko lider René Martínez erail zuten. Aktibista horrek hurbilketa bat lortu zuen LGBTI sektoreen eta Alderdi Nazionalaren artean.

Oso deigarria da hainbat taldek 2017ko azaroan egingo diren presidentziarako hauteskundeetan parte hartzeari ematen dioten garrantzia. Gogotsuenek argudiatzen dutenez, "azkenean, politikoez mugatzen dizkigute gure eskubideak" eta "arrikuak hartu behar badira ere, LGBTI politikariak jartzea urrats eraginkorra da ikus gaitzaten lortzeko, estigmak erorarazteko eta pentsamoldeak aldatzeko". Aktibista eszeptikoago batek adierazi duenez, gaur egun "parte-hartze politikoa eta Genero Identitateari buruzko Legea sustatzen da, eta Ameriketako Estatu Batuetako agentzietatik diru asko iristen da horretarako".

Beste argudio batzuk 2016an inkesta bat bete zuten 748 LGBTI pertsonen % 81ek adierazitako iritzian daude oinarrituta²⁸. Haien ustez, "alderdi politikoek agendek ez diete erantzuten LGBTI pertsonen herrialdean dituzten arazo eta premiei", eta LGBTI politikariek baino ez dute defendatuko komunitatearen giza eskubideen aitorpena. Azterlanak agerian uzten duenez, berdintasunezko ezkontzaren eta sexu bereko bikoteek adoptatzeko aukeraren gaiei ez zaie hainbesteko garrantzirik ematen, eta horrek berretsi egiten du "oinarrizko eskubideak erabili ahal izanez gero (hezkuntza, osasuna, lana eta parte-hartze ekonomikoa), errazagoa da ezkontzaren eta adopzioaren arloan legerdintasuna eskatzea" dioen hipotesia.

2017ko martxoaren 12an egindako hauteskunde primarioetan, 7 LGBTI liderrek hartu zuten parte diputazio, alkatetza eta nazio-mailako diputazioetarako lehian, baina ez zituzten hautatu: LIBRE alderdiak 3 trans, 2 gay eta lesbiana 1 aurkeztu zituen, eta Alderdi Liberalak, berriz, trans emakume bat. Halaber, martxoan hauteskunde primarioerik egin ez zuten bi alderdik LGBTI pertsonak izango dituzte azaroko hauteskundeetako zerrendetan: Partido Innovación y Unidad-PINU alderdiak (Rihanna Ferrera, COZUMEL TRANSeko koordinatzailea) eta Partido Anticorrupción-PAC alderdiak (gizon gay bat).

Hauteskunde-prozesuetan parte hartzearen helburuari dagokionez, LGBTI erakunde guztiak ez datoz bat. LIBRE alderdiko hautagai batek adierazi duenez, "pertsona heterosexualak kontzientziatu behar ditugu gure agendak babes ditzaten, ez baikaude berdintasunezko ezkontzez edo adopzioez hitz egiteko, giza eskubideak defendatzeko eta ustelkeriari eta indarkeriari aurre egiteko baizik", eta Violeta kolektiboko koordinatzailearen ustez, berriz, "Konstituzioak hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea ematen digu, eta guk, hautatzeaz gain, ordezkariak nahi ditugu Estatuko egituren barruan, LGBT komunitate gisa ditugun premiak helaraz ditzaten".

²⁷ LIBRE alderdiaren 7. artikulua sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko diskriminazioa debekatzen du.

²⁸ "Reflexiones sobre la participación política de las personas LGBTI en Honduras" (2016). Caribe Afirmativo, Instituto Nacional Demócrata, Somos CDC, Gay & Lesbian Victory Institute.

C. 5. LGBTI KOMUNITATEAREN ERREIBINDIKAZIO-AGENDA

LGBTI agenda komuna

- Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak Hondurasi 2010ean eta 2015ean egindako Aldizkako Azterketa Unibertsalen ondoriozko gomendioak betetzea.
- Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren aurrean giza eskubideen defendatzaileak babesteko mekanismoari (2016ko abendua eta 2017ko martxoa), LGBTI pertsonen giza eskubideen egoerari (2016ko apirila) eta giza eskubideen egoera orokorrari (2014ko abuztua) buruz egindako audientzien ondoriozko gomendioak betetzea.
- Sexu-orientazioagatiko diskriminazioa debekatzen duten Zigor Kodearen 27. eta 321. artikulua ez kentzea.
- LGBTI pertsonen beren giza eskubideen erabilera bermatuko dien diskriminazioaren aurkako lege bat lantzea.
- LGBTI pertsonen giza eskubideen defendatzaileak eta aktibistak babesteko mekanismo eraginkorrak ezartzea.
- Giza Eskubideen Ekintza Plan Nazionalean jasotako ekintzak egitea.
- Herrialdearen militarizazioan oinarritutako segurtasun-politika nazionala aplikatzeari uztea, LGBT komunitatearen aurkako indarkeriaren areagotze esanguratsua eragin baitu dagoeneko.
- LGBTI komunitatearen aurkako gorroto-krimenen egile material eta intelektualak ikertu, auzitaratu, judzializatu eta epaitzea. Zigor Kodean gorroto-krimenak tipifikatzea.
- Osasunaren eta hezkuntzaren arloetan LGBT komunitatearen aldeko programak eta aurrekontuak abiaraztea.
- LGBT pertsonentzako (eta, bereziki, emakume transexualentzako) enplegu-politikak sortzea, eta politika horietan pertsona horiek kontratatzen dituzten enpresentzako laguntzak eta lan-trebakuntza eta lanbide-trebakuntzako bonuak ezartzea.

Agenda lesbiko espezifiko

- Emakume lesbianentzako VICITS klinikak egitea, daudenak GSGei (gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoek) laguntzera bideratuta baitaude.
- Emakume lesbianentzako sexu- eta ugalketa-osasuneko arreta espezifikorako protokoloak ezartzea.
- Lantokietan gertatzen diren jazarpen lesbofoboak eraginkortasunez zigortzea.
- Ama lesbiana edo bisexualei guraso-ahala kenduko ez zaiela bermatzea.

Trans agenda espezifiko

- Genero Identitateari buruzko Legea onartzea, pertsona transexualen nortasun-agiria haien genero-identitatearekin eta irudiarekin bat etor dadin eta pertsona horiek osasunari, hezkuntzari, etxebizitzari eta abarri lotutako zerbitzu publikoak eta pribatuak inolako mugarik gabe lortu ahal izan ditzaten.
- Trans emakumei preberbatiboak, lubrifikatzaileak eta HIESaren aurkako sendagaiak (kliniketan trans emakumei ematen ez zaizkienak) lortzeko aukera ematea.

C. 6. NAZIOARTEKO LAGUNTZA JASOTZEKO PROPOSAMENAK

Elkarrizketatutako pertsonen identifikatutako premiak

- LGBTI erakundeen **barne-sendotzea** lortzeko baliabideak, honako hauen bidez:

- auzi estrategikoari eta justiziara jotzeko estrategiei buruzko prestakuntza;
 - intzidentzia politikoaren inguruko trebakuntza;
 - tokiko taldeetako aktibista gazteei zuzendutako Lidergo Eskola bat abian jartzea;
 - transen eta lesbianen erakundeek nortasun juridikoa lortzeko babesa (5.000 dolar balio du izapidetzeak).
- LGBTI pertsonen eskubideak bultzatu, tolerantzia sustatu eta fundamentalismo erlijiosoari aurre egingo dioten **tokiko kanpainak eta kanpaina nazionalak** egiteko baliabideak.
- **LGBTI erakundeen konfederazio** bat abian jartzeko baliabideak, konfederazioaren barruan erakunde sendoek (hala nola SOMOS CDC izenekoak) Tegucigalpatik kanpo dauden taldeei sendotzen lagun diezaieten eta konfederazioa talde horiek trebatzen dituen eta jarduerak egiteko baliabideak ahalbidetzen dizkien “aterpe-erakundea” izan dadin.
- Hondurasko LGBTI komunitatearekiko **elkartasun politikoa, eta, horretarako:**
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea Hondurasekiko lankidetzak LGBTI eskubideak ez urratzearen eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko mekanismoa eraginkorra izatearen baldintzapean egiteko;
 - Europar Batasunak aurki Hondurasi Fiskaltza sortzeko 150 milioi euro emango dizkiola kontuan hartuta, Europar Batasunari presioa egitea gorroto-krimenak ikertuko dituen fiskaltza berezi bat sor dadin;
 - jazarpena jasaten duten LGBTI pertsonen babesa eskaintzea, premia erantzuteko mekanismoen eta larrialdietarako aterpeen bidez;
 - Euskal Autonomia Erkidegora emigratu duten Hondurasko lesbiana eta transekin zer gertatzen ari den ikertzea; izan ere, jasotako albisteen arabera, indarkeria jasaten ari dira lanean beren sexu-orientazioagatik edota genero-identitate edo genero-adierazpenagatik.

NIKARAGUA



Hiriburua: Managua

Gobernu mota: Errepublikak presidentzialista

Biztanleria: 6.169.668 biztanle (2016)

Homosexualitatearen legezatasuna:

Sexu bereko pertsonen arteko sexu-jarduera legezkoa da Nikaraguan 2008. urteaz geroztik. Baimenerako adina 16 urte da, orientazio afektibo sexuala edozein izanik ere, eta sexu-delitu guztiak neutroak dira generoari dagokionez, Nikaraguako Zigor Kodearen 168., 170., 172. eta 175. artikuluen arabera.

D. LGBTI KOMUNITATEAREN EGOERA NIKARAGUAN

“Aldatu dena da LGBTI pertsonak agerikoagoak direla, baina komunitatearen gainerako eskubideen inguruko aurrerapenik ez da izan” (Valeria Silva, Iniciativa desde la Diversidad Sexual para los Derechos Humanos-IDSDH erakundekoa²⁹).

D. 1. LEGE-ESPARRU BERRIA FSLN ALDERDIA GOBERNURA ITZULTZEAN

FSLN alderdia 2006ko presidentziarako hauteskundeetan garaile izan zenean, Latinoamerikan sexu bereko pertsonen arteko sexu-harreman baimenduak zigortuta zeuden herrialde bakarra zen Nikaragua.

1992. urtean, Violeta Barrios agintean zela, 150. Legea onartu zen. Horren bidez, Zigor Kodea erreformatu zen, eta 204. artikulua txertatu zen. Artikulu horrek espezifikoki tipifikatzen zuen sodomia: *“Sodomia-delitua egiten du sexu bereko pertsonen arteko koitua bultzatzen, sustatzen, horren aldeko propaganda egiten edo era eskandalagarrian egiten duenak. Urtebetetik hiru urtera bitarteko zigorra jasoko du. Egiten duen batek (baita era pribatuan ere) bestearengan diziiplina- edo aginte-ahala duenean (aurreko ahaidea, zaintzailea, irakaslea, burua eta abar) edota autoritate-eragina edo eragin moralak dakarren beste edozein kontzepturen kasuan, sedukzio bidegabearen zigorra aplikatuko zaio, eta erantzule bakarra izango da”.*

2004. urtean Amnesty International erakundeak adierazi zuenez, “204. artikulua formulazioan erabilitako terminoak hain dira zabalak eta zehaztugabeak” delitua, sexu-harremanak dituzten sexu bereko bi pertsonak ez ezik, “lesbianen eta gayen eskubideak defendatzea, sexualitateari buruzko osasun-informazioa ematea edota heterosexualen kasuan zigortuta ez dauden zirkunstanzietan harreman homosexualak izatea” sustatzen dutenek ere egiten dute³⁰.

2008. urtean, Batzar Nazionalak Zigor Kode berria (**641. Legea**) onartu zuen³¹. Indarrean jarri zenetik, 204. artikulua Nikaraguako legeriatik ezabatu zen, eta **sexu-orientazioagatik diskriminazioari lotutako jokabideak zigortzen dira**. Bereziki, **36. artikulua** zehazten duenez, delituaren zigor-erantzukizunaren inguruabar astungarrien barruan sexu-orientazioagatik diskriminatzea dago, eta, horregatik, ILGA elkarteak interpretatu du Nikaraguako legeriak “gorroto-krimen” kontzeptua lantzen duela, eta “sexu-orientazioan oinarritutako gorroto-krimenak inguruabar astungarritzat” hartzen dituzten munduko 20 herrialdeen artean kokatu du Nikaragua.

Hala ere, lege hori indarrean jarri zenetik orain arte, ez da 36. artikulua aplikatu (delitua eraginpean hartutako pertsonaren sexu-orientazioagatik egin dela argudiatuta). LGBTI aktibistek diotenez, ez da

²⁹ Rachel Cranek "La búsqueda de una agenda en común: Una mirada feminista a las organizaciones LGBTI en Nicaragua" azterlanean egindako elkarrizketa (2015). Independent Study Project (ISP) Collection. Paper 2263. http://digitalcollections.sit.edu/isp_collection/2263.

³⁰ El caso Nicaragua. www.cejil.org/sites/default/files/legacy_files/EI%20Caso%20de%20Nicaragua.pdf

³¹ LGBTI aktibistek goraipatu egin zuten kode hori, baina emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak gogor kritikatu zuten, abortu terapeutikoa kriminalizatzen baitzuen.

jarraibide eta araurik ezarri justizia-operadoreek delitua biktimaren sexu-orientazioagatik egin dela jakiteko irizpideak izan ditzaten.

Indarrean dagoen Zigor Kodearen arabera, pertsonen eskubide eta berme konstituzionalen aurkako **delitua da diskriminazioa. 427. artikulua** arraza, genero, sexu-orientazio, ezgaitasun, hizkuntza edo gizarte-mailagatiko diskriminazioa debekatzen du, **428. artikulua** diskriminazioa sustatzen duena zigortzen du, eta **315. artikulua**, berriz, 6 hilabetetik urtebetera bitarteko espetxe-zigorra ezartzen dio lan-eremuan sexu-aukeragatik diskriminatzen duenari.

2009ko azaroan, **Sexu Aniztasunerako Prokuradoretza Berezia** (PEDS) sortu zen Giza Eskubideen Prokuradoretzaren barruan, eta Safo talde lesbikoko koordinatzaile Samira Montiel izendatu zuten prokuradore. Prokuradoretza horren zereginak honako hauek dira: erakunde publikoetan LGBTI pertsonak ez diskriminatzeke betebeharra betetzen den ikuskatzea, funtzionarioak sexu-aniztasunaren giza eskubideen arloan hezteak, “herrialdeko LGBTI komunitatearen eskubideak itzultzen lagunduko duten lege-proiektuak, administrazio-erreformak, nazioarteko konbentzioak eta gainerako lege-gorputzak” proposatzea, eta LGBTI komunitatea Prokuradoretzaren barruan salaketa bat jartzeko dauden mekanismoen inguruan orientatzea.

2014. urtean, LGBTI kolektiboetan eragin handia izan zuten bi lege onartu ziren, haien eskubideak kontuan hartu gabe: **Familia Kodea** eta **Emakumeen aurkako Indarkeriari aurre egiteko Lege Integrala**. LGBTI kolektiboa kontuan hartu zuen lege bakarra (kontzeptuzko esparruan, ez, ordea, legearen gorputzean) **820. Legea** izan zen. Legea 2012an onartu zen, “GIBaren eta HIESaren aurrean giza eskubideak sustatu, babestu eta defendatzeko”.

Legegintza-aurrerapen horiek gorabehera, LGBTI pertsonak diote egunero bizi dituztela diskriminazio-egoerak. 2010. urtean egindako ikerketa baten arabera³², inkesta egin zuten 1.295 LGBTI pertsona guztiek adierazi zuten diskriminazioa jasan zutela eskola-sisteman, % 48k familiaren esparruan, % 23k lantokian eta % 12k osasun-sisteman.

Amnesty Internationalen ustez, *“sexu-aniztasuna babesteko legeriaren arloko aurrerapen horiek oraindik hasi baino egin ez den lege-esparru baten eraikuntzaren hasiera dira. Ardatza sexu-orientazioagatiko diskriminaziorik eza bada ere, ez da oinarrizko konstituzio-eskubide gisa eta giza eskubideen ikuspegi garbi batetik lantzen. Era berean, sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako “gorroto-krimen” kontzeptua ez da kontuan hartzen Nikaraguako legerian”*.

Bikotea eta familia osatzeko eskubidea

LGBTI pertsonak berdintasunezko lege-tratu bat jasotzea eragozten dieten lege-oztopoei egin behar diete aurre. Familia Kode berriak ezartzen du familia dela gizartearen oinarrizko nukleoa, legeen babesa behar duela eta ezkontza gizon baten eta emakume baten artean baino ezin dela gauzatu. Aldi berean, esplizituki debekatzen du sexu bereko pertsonen osatutako bikoteek adoptatzeko aukera.

Familia Kodeak sexu bereko pertsonen osatutako bikoteak aintzatesten ez dituen gero, LGBTI pertsonak ezin dute aseguru medikorik, pentsiorik edo kalte-ordainik jaso bikotekidearen istripu, gaixotasun edo heriotzaren kasuan. LGBTI bikoteek ezin dute banku-mailegurik lortu finantza-erakundeek aintzatesten ez dituztelako, eta ezin dituzte eskuratu gobernuak familiei eskaintzen dizkien gizarte-babeseko etxebizitzak edo beste gizarte-programa batzuk. Familia Kodearen ondoriozko mugez gain, **ez dago legerik trans pertsonen beren lege-agirietan genero-identitatea islatzeko aukera ematen dienik**.

³² “Una mirada a la diversidad sexual en Nicaragua”. Sexu Aniztasunaren Giza Eskubideen aldeko Talde Estrategikoak (GEDDS) egindako ikerketa aitzindaria.

Osasunerako eskubidea

Osasun Ministerioak osasun-sistemara jotzean sexu-orientazioagatiko diskriminazio mota oro debekatzen duen **249. ministro-dekretua** aldarrikatu zuen 2009. urtean. 2014an, berriz, osasun-unitate publiko eta pribatuetan sexu-orientazio, genero-identitate eta/edo genero-adierazpenagatik, GIBaren eramailea izateagatik edo sexu-lanean aritzeagatik diskriminatzea debekatzen duen **671. Legea** onartu zen.

Ministerioak bat egin zuen VICITS estrategiarekin³³ 2011. urtean, eta GIBa duten heterosexualak ere hartzen dituzten 4 VICITS klinika instalatu zituen. 2015. urtean, Arreta Integraleko Klinikak jarri zituen abian, LGBTI pertsonen osasun-premia berezietan laguntzeko. Gaur egun, HIESaren aurkako Munduko Funtsak finantzaturako 36 klinika daude.

LGBTI erakunde batzuek osasun-arloko langileak LGBTI pertsonen arazo espezifikoak eman beharreko erantzunaren inguruan prestatzeko egindako ahaleginak gorabehera³⁴, aktibistek diote egunero egiazta daitezkeela estigmatizatzen ez duen osasun-arreta bat jasotzeko dauden arazoak eta osasun-zentroetan eta ospitaleetan LGBTI pertsonak diskriminatzen dauden moduak (irekiak eta zoliak).

Adibidez, LGBTI pertsonak ezin dute odolik eman, emakume lesbianak eta transexualak ez dira kontuan hartzen bularreko minbiziari aurrea hartzeko kanpainetan, GIBaren inguruko kanpainak gizonezkoen preserbatiboaren erabilera dute ardatz (beste sexu-harreman mota batzuk ahaztuta), eta trans identitatea oraindik ere nahasmendu psikologikotzat hartzen da Nikaraguako unibertsitateetan erabiltzen diren osasun mentaleko eskuliburuetan.

Nolanahi ere, bereziki kezagarria da **lesbianen osasun-egoera**: % 66k inoiz ez du bularren azterketa bat egin, % 50ek inoiz ez du papanicolau bat egin, eta % 40k baino ez du egin GIBaren proba. Emakume horiek diotenez, ginekologoek "sexualki ez-aktibotzat" hartzen dituzte penetrazioak gabeko sexu-harremanak dituztelako, eta horren arabera da jasotzen den arreta mota, erabiltzen diren tresnak eta kontuan hartzen diren osasun-arazoak. Gainera, inkestaren arabera, 5etik 2k uste dute lesbianak direlako ezin dutela GIBa harrapatu. Seguruenik, GIBaren prebentzioari eta transmititzeko moduei buruzko informazioaren alderdi maskulino nabarmenaren eraginez gertatzen da hori.

GIBaren prebentzioari eta arretari dagokionez, Munduko Funtsak ematen dituen baliabideak Nikaraguako Segurtasun Institutuak (INSS) kudeatzen ditu, eta Ministerioen eta GIBari lotutako 32 GKEen artean banatzen ditu. LGBTI erakunde batzuek diote funtsak gobernuarekin kritikoa ez diren GKE "salubristentzat" izaten direla.

Lanerako eskubidea

Adierazitako inkestaren arabera, LGBTI pertsonen langabezia-maila Nikaraguako herritar guztienaren bikoitza da, eta % 25era iristen da. 4 LGBTI pertsonatik batek dio diskriminatuta sentitu dela lantokian,

³³ VICITS GIBaren prebentzio konbinatua barnean hartzen duen zaintza-estrategia bat da, eta sexu-langileak diren emakumeei, gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoak (GSG) eta trans emakumei zuzenduta dago. Nikaraguan eta Guatemalan, GIBa duten pertsonak ere hartzen ditu. VICITS estrategiak sexu-transmisioko infekzioen (STI) prebentzio, diagnostiko eta tratamendurako zerbitzuak ditu.

³⁴ Elkarriketatutako pertsonak adierazi dutenez, honako gai hauek trebatu zituzten osasun-arloko langileak: gizon gay eta GSGen Arretarako Protokoloa (CEPRESI), GIBaren gaian trans pertsonentzako arreta hobetzeko Araudia (TRANS SAREA) eta trans pertsonentzako arreta espezifikoaren eskuliburua (ANIT). CEPRESIk zehaztu duenez, Osasun Ministerioak protokoloa onartu du, baina ez da aplikatzen.

eta horrela sentitu ez direnek onartu dute “kontratutako ez zituzten edo lana galduko zuten beldurrez beren sexu-orientazioa edo genero-identitatea ezkutatu dutelako” izan dela.

Eskola-eremuan jasaten dituzten diskriminazioak direla eta, eskola-uztea handiagoa da LGBTI pertsonen kasuan. Horregatik, gutxi dira bigarren hezkuntza amaitzen dutenak, eta are gutxiago unibertsitatera iristen direnak. Horren guztiaren ondorioz, LGBTI pertsona gehienek sektore informalean baino ez dute lana aurkitzen, eta parfumeak, freskagarriak eta janaria saltzen aritzen dira.

Justiziarako eskubidea

LGBTI pertsonak atxilotuta arbitrarioak jasaten dituzte (adibidez, polizia trans emakumeak atxilotzen ditu sexu-lanean ari direnean, baina lan bera egiten ari diren emakume biologikoak bakean uzten dituzte), eta atxilotu ondoren zirikatuta egiten dituzte, ez dituzte errespetatzen eta tratu iraingarria jasotzen dute. Gainera, egiten dituzten salaketak gutxietsi egiten dituztela, “maritxuen arteko auzitza” hartzen dituztela eta polizia-ikerketarik eta erasotzaileen auzitaratzerik eragiten ez dutela diote.

2010eko inkestak agerian utzi zuenez, elkarrizketa egin zutenen % 17k gutxienez behin atxilotu zituztela adierazi zuten, baina atxilotutako 7tik bat baino ez zen epaitu. Hau da, atxilotutako 7tik 6 ez zituzten salatu eta auzitaratu, eta, beraz, behin-behineko espetxeratze-aginduak jasan zituzten inolako oinarri administratibo edo judizialik gabe. Gainera, LGBTI pertsonak salatzen dituztenean, haien ustez “subjektiboak” diren delituengatik salatzen dituzte, egiten dituenaren eta ikusi dituzten polizien iritziaren arabera baitira: 4tik 3 “bide publikoan sortutako eskandaluagatik” edo “ekintza immoralengatik” salatzen dituzte.

Amnesty Internationalen azterlanak, bestalde, agerian utzi du gay trans emakumeak baino ausartagoak direla Polizia Nazionalean salaketa bat aurkezteko garaian. Erasoengatik jarritako salaketen % 55 gay aurkeztu zituzten, eta % 45 trans emakumeek. Horren arrazoa trans emakumeek polizia-etxeetara hurbiltzeko duten beldurra da, aurretik polizien tratu txarrak eta abusuak jasan izan baitituzte kalean edo polizia-etxeetan.

D. 2. TRANS EMAKUMEAK: DISKRIMINATUENAK ETA ERASOTUENAK

Trans emakumeak kalteberenak eta beren burua emakumetzat hartzeagatik diskriminazio eta indarkeria gehien jasaten dutenak dira LGBTI kolektiboaren barruan.

Trans emakumeak dira hezkuntza-mailarik txikiena dutenak: % 10 baino ez dira ikasketak teknikoak edo unibertsitate-ikasketak egin dituztenak (LGBTI pertsona guztiak kontuan hartuta, ehuneko % 36ra iristen da). Halaber, diskriminatuenak dira ikastetxeetan (babesteko beharra argudiatuta, gauez eta larunbatetan baino ezin dira klasera joan), jazarpenak eta erasoak jasaten dituzte, eta gainerako LGBTI pertsonen maiztasun bikoitzarekin uzten dituzte ikasketak. Irakasleen diskriminazioari ere aurre egin behar diote, ez baitiete gonak edo soinekoak eramaten edota ile luzea izaten uzten. “Bigarren hezkuntza sentitu eta nahi bezala jantzen den trans emakume gisa amaitzea balentria da”.

2016. urteaz geroztik osasun-arloko langileek trans emakumeentzako arreta espezifikoari buruzko eskuliburu bat badute ere (Asociación Nicaragüense de Transgéneras-ANIT elkarteak egina), osasun-arloko profesional gehienek trans identitatea nahasmendu psikologikoa dela uste dute oraindik. Bestalde, 2014. urtean, HIESaren intzidentzia % 18ra iritsi zen kolektibo horretan (% 9,7ra gizon gayen kasuan).

Era berean, diskriminatuta daude lana lortzeko garaian, eta lantokietan gainerakoek baino diru-sarrera txikiagoak izaten dituzte. Legeak beren identitatea islatzeko agiriak aldatzea eragozten dienez gero, lan bat eskatzen dutenean jaiotzean esleitutako sexua eta izena eta sarritan benetako itxurarekin bat ez datorren argazkia agertzen dituzten agiriak aurkeztu behar izaten dituzte. Hori guztia dela eta, trans emakumeen ohiko aukera sexu-lana izaten da, baina horrek arazo handiagoak ekartzen dizkie, hala nola GIBa, drogak eta indarkeria. Zehazki, 10etik 8k adierazi dute indarkeria jasan dutela, eta 3tik 1 sexu-harremanak izatera behartu dute (gainerako LGBTI pertsonen proportzioaren bikoitza).

Era berean, atxilotu, salatu eta auzitaratutako pertsonen ehunekoak bikoitzak dira trans emakumeen kasuan, gainerako LGBTI pertsonekin alderatuta: 3tik 1 atxilotu dute noizbait, 6tik 1 salatu dute, 18tik 1 auzitaratu dute, eta 14tik 1ek jasan ditu sexu-abusuak espetxean edo polizia-etxeetan (43tik 1ek gainerako kasuan). Horrez gain, trans emakumeak dira erlijio-ordezkariek gehien jazartzen dituztenak.

Bestalde, **trans gizonak** LGBTI komunitateko kolektiborik ikusezinena dira. Ez dago haiei buruzko azterlanik. Batzuek kolektibo lesbikoetan parte hartzen dute –ARTEMISA eta ADESNI kolektiboetan–, eta trans gizonen sare bakarra –eta birtuala– ezagutzen da, TRANSMEN NICARAGUA izenekoa.

D. 3. NIKARAGUA: LGBTI KOLEKTIBOARENTZAT BATERE SEGURUA ETA LASAIA EZ DEN HERRIALDEA

Nikaragua gaur egun El Salvador, Honduras eta Guatemala baino herrialde “lasaiagoa eta seguruagoa” bada ere, LGBTI komunitateak ez du segurtasun eta lasaitasun hori sentitzen eguneroko bizitzan.

LGBTI pertsoneri kalean, eskoletan eta lantokietan erasotzen diete, eta agintariak permisibitatea agertzen dute pertsona horiek jasaten duten indarkeriaren aurrean. Polizia Nazionalak estigmatizazio-irizpideekin jokatzeko du, eta LGBTI pertsonak babesten dituen erakunde bat izan ordez, mehatxu bihurtzen da askotan. “Polizia gayei eta transexualei gehien erasotzen dieten Estatuko erakundeetako bat da”, diote aktibistek.

GEDDS taldearen 2010eko azterlanak agerian utzi zuenez, LGBTI pertsonen ia erdiek jasan zuten indarkeria motaren bat beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik. Elkarrizketatutako 245 trans emakumeen % 80k, 232 lesbianen % 50ek eta 599 gizon gayen % 45ek adierazi zuten indarkeria jasan zutela beren sexu-identitateagatik. Itxura femeninoagoa duten gayentzat, itxura maskulinoagoa duten lesbianentzat eta trans emakumeentzat (genero-trantsizioa egin dutenentzat zein bestelakoentzat), irainak eta iruzkin laidogarriak, segurtasun pertsonalaren aurkako mehatxuak eta lesio arinak –eta zenbaitetan larriak– uzten dituzten eraso fisikoak eguneroko bizitzaren parte dira.

Elkarrizketa egin zuten pertsonen erdiek adierazi zuten indarkeria fisikoa, psikologikoa eta/edo sexuala jasan zutela etxean, kalean, eskolan eta lantokian. Nolanahi ere, indarkeria hori gehien agertzen den lekua etxea da, eta gehien jasaten dutenak, berriz, trans emakumeak. Homo-lesbo-transfobiaren kasuan, indarkeria progresiboa da; irainekin hasten da, kolpeak agertzen dira ondoren, eta sexu-indarkeria azkenean. Sexu-orientazioa edo genero-adierazpena zenbat eta nabarmenagoa izan, orduan eta ohikoagoa eta agresiboagoa da indarkeria hori. Ez da herrialde mugakideetako bezain ohikoa, baina zenbaitetan heriotza dakar indarkeria horrek.

Amnesty Internationalek sexu-aniztasunari lotutako pertsonen aurkako 53 eraso- eta indarkeria-kasu jaso zituen 1999tik 2011ra bitarte. Kasu horiek, “ezaugarriak kontuan hartuta, delitutzat har daitezke, eta, beraz, erasotzaileen jokabide kriminalak dira”. Kasu horietatik, 23 eraso larriak izan ziren (su-

armekin, arma zuriekin edo beste objektu batzuekin), eta beste 15 erailketak izan ziren. Horrela, beraz, erasoen % 72tan erabilitako indarkeriak biktimaren heriotza edota lesio fisiko eta/edo psikologiko larriak eragin zituen.

Erasotutako 53 pertsonetatik, 26 gayak ziren, 26 transak eta bakarra zen lesbiana. Talde lesbikoen ustez, eraildako edo erasotutako lesbianeiei buruzko datuak gutxietsita daude, feminizidio edota emakumeen aurkako genero-indarkeria gisa erregistratzen baitira.

Oro har, gaueko orduetan, lekurik arriskutsuena kalea da gayentzat eta, batez ere, trans emakumeentzat (tabernak, diskotekak, parkeak eta malekoiak). Aipagarria da eraso horiek herriko jaietan gertatzen direla, eta alkoholaren kontsumoa eta sexu-lana faktore garrantzitsutzat hartzen direla. Oro har, trans emakumeek gayek baino gazteagotan jasaten dute kaleko indarkeria (bost urteko aldearekin), eta trans emakumeek arbuio handia jasaten dutelako, familiarik botatzen dituztelako eta asko sexu-lanean aritzen direlako gertatzen da hori.

Kalean, beraz, trans emakumeek gayek baino neurri handiagoan jasaten dute indarkeria fisikoa; etxean, aldiz, eraildako gayak trans emakumeak baino gehiago dira. Amnesty Internationalen azterlanaren arabera, etxean eraildakoen % 100 gayak izan ziren, eta horrek esan nahi du gayentzat "etxea arrisku handiko lekua dela, batez ere nolabaiteko autonomia eta ahalmen ekonomikoa dutelako bakarrik, era independentean eta gehiegi nabarmendu gabe bizi daitezkeenentzat".

53 eraso eta indarkeria-ekintzetan, egile bakarra izan zen emakumea (trans bat erail zuen Matagalpan 2009. urtean). Ekintza horiek gizonen arteko botere-harremanen eta indarkeria emakumeak kontrolatzeko eta menderatzeko tresna gisa erabiltzea ahalbidetzen duen arau matxistaren adierazpen argiak dira. Era berean, erasotzaileek barneratuta dituzten homofobia- eta transfobia-maila handiak uzten dituzte agerian, eta alderdi femeninoa baztertu, gorrotatu eta zigortzeko agindu patriarkalaren zuzeneko adierazpenak dira.

